



## ERABAKITZEKO ORDUA

Ekainaren 5ean, independentziaz Azpeitian egingo den herri galdeketarako dena prest 16

**"Badakit beti alboan izango dudala"**

IRAKASLEA ETA  
GAES-EKO BEZERRA



ORAIN DELA BIRLITE TATIK  
MERCEDESEN AUKOPROTEBISTA



**GAES AZPEITIA**

Foruen Ibilbidea, 8 - T. 943 150 395

azpeitia@gaes.es

**ENTZUMEN AZTERKETA DOAN**

**DEITU ETA ESKATU TXANDA**





Smart Retail  
sistema berria



**AZKOITIA** Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16  
Tel. 943 85 18 97 [www.milarlarramendi.com](http://www.milarlarramendi.com)



Astelehenetik ostiralera:  
9:30 - 13:00 16:30 - 20:00  
Larunbata: 9:30 - 13:00



Bazkide egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan aukera hauetako baten bitartez:

- [uztarriabazkidetza@gmail.com](mailto:uztarriabazkidetza@gmail.com)
- Telf: 943 15 03 58
- Bulegoko helbidea Helbidea: Perez Arregi 1 behea
- webgunean, Kontaktu formularioa bitartez



# egin bazkide

# uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
 Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
 (Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 184.a (2016ko ekaina)  
**Urte.** XVII.a (1999ko azaroan sortua)  
**Marztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio eta  
 Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 688883491 /  
 uztarrria@uztarrria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilerro  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** Enok Sodupe  
**Webgunea.**  
[www.uztarrria.eus](http://www.uztarrria.eus)

**Uztarrria herri aldizkariaren laguntzaileak** (erakunde publikoak)



**Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua**

**Oharra.** Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

## 2016KO EKAINEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER? ||||||||||||



### iritzia

**Inkesta.** Parte hartuko al duzu udalekuetan udako oporretan? **13**

### mamia

**Jabier Larrañaga.** Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatuari elkarrizketa **04**  
**Uxoia Ibarreta.** Aretoko dantza ikaslea eta irakaslearekin solasean **24**

### jakiteko

**Bestaldetik.** Mendi kontuak utzi, eta Lagun Onakeko lehendakari Aitor Unanurekin solasean **34**  
**Zu zeu.** Triatlୋiaz, Nerea Berasategirekin **45**

**Ba al dakizu** otsailko salaketak eta gero, ez dela ahari jokorik egin azpeitiko zezen plazan? **Uztarrria**

**Izan uztarriaren bazkide** **943 15 03 58**

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1** eta **biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.

**1.060** bazkide **gara** Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko deni.

**30** euro dira urtean.



**Liburuxka biografikoak, oraingoz.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

# JABIER LARRAÑAGA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatua

## “Guztiok aberatsagoak izatea da helburua”

Urtebete darama Diputazioan lanean, egungo ongizate mailari eusteko helburuari tiraka. “Iruzur fiskalari aurre egitea” da lehen erronka. 📌 **Ihintza Elustondo**

**A**zpeitiko Kultur Mahaiak, Erlo Telebistak, Sanagustin kultur-guneak, *Urola Kostako Hitza*-k eta Uztarría Komunikazio Taldeak elkarrizketa ziklo berri bati hasiera eman diete. 2013 eta 2015 artean *Aho Bizarrik Gabe* egin zuten, Euskal Herriko jende ezagunarekin, eta hamabi gonbidatu izan zituzten, Sanagustinen. Oraingo honetan, berriaz, azpeitiar ezagunak izango ditugu gonbidatu, eta Jabier Larrañaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatua izan da aurrenekoa. Ihintza Elustondo *Berria*-ko kazetariak egin dio elkarrizketa. Ziklo honetan zuzeneko ikuslerik gabeko saioak izango dira baina, besteak bezala, irakurgai eta ikusgai

egongo dira antolatzaileen heda-bideetan.

Karmelo Etxegarain egin zituen lehenengo ikasketak Jabier Larrañagak, eta, gero, Bilboko Deustuko Unibertsitatean Informatikan lizentziatu zen. Karrerako azken urtea Suedian egin zuen, Erasmun programaren bidez. Ikasketak bukatzean, bost urtez Unilever enpresan aritu zen; Bilbon aurrena eta, ondoren, Londres eta Herbehereen artean. 2000. urtearen bukaeran, Euskal Herrira itzuli zen Kutxan lan egiteko. Postu ezberdinak izan zituen bankuan, eta handik, Gipuzkoako Foru Aldundira egin zuen salto.

**Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa?**

Oroitzapen oso onak ditut. Eliz

### ||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1972ko otsailak 6.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza diputatua.

kalekoa naiz, eta han ibiltzen ginen, jolasean. Saskibaloian ere ibili nintzen. Orain gutxi arte, ikastolako argazkien erakusketa egon da Betharrametako aretoan, eta Haur Hezkuntzako irudiak ikusiz gero, gaur egungo kuadrillako gehienak han gaude. Urte dezente kanpoan ibili eta gero, azkenean, berriro Azpeitira bueltatu nintzen, eta gustura, gainera. **Informatika ikastea erabaki zenuen, Deustuko unibertsitatean. Zer dela eta hartu zenuen bide hori?**

Beti izaten duzu zalantza zer nahi

duzun egin. Gustatzen zitzaidan informatikaren mundu hori; erreferentzia onak nituen. Eta gauzak izaten diren bezala; hasi, eta konturaterako bukatu nuen. Hango lagunak mantentzen ditut, noizean behin ikusten gara. Bilbon bizi izan nintzen, eta etxetik kanpo bizitzea oso esperientzia aberasgarria izan zen.

**Kutxabank Enpresak saileko Gipuzkoako zuzendari zirela, Gipuzkoako Ogasun eta Finantza diputatu izatea proposatu zizuten. Zergatik erabaki zenuen proposamena onartzea?**

Nik uste dut gauza horiek ez direla asko pentsatu behar. Askok pentsatuz gero, beti bilatuko duzu ezetz esateko arrazoiren



bat. Egia da proiektu eta erronka berriak beti gustatu izan zaizkidal. Zentzu horretan, denok dugun erosotasun edo konfort gune horretatik ateratzea ez zait asko kostatzen, eta, horrez gain, proiektua polita iruditu zitzaidan. Animatu egin nintzen, eta, egia esan, ez naiz damutu.

**Urtebete daramazu kargu horretan. Zer-nolako balorazioa egiten duzu?**

Positiboa. Denbora oso azkar pasatzen da. Niretzat lehenbiziko seihilekoa garrantzitsua zen; nire helburua zen talde ona osatzea. Izan ere, talde ona baduzu, erdia eginda duzu. Nik uste dut gobernu mailan eta ogasun mailan oso talde indartsua osatu dugula. Une honetan, denok batera oso martxa onean ari gara lanean. Eta, gero, horren etekin bezala, gauzak egiten saiatzen ari gara.

**Ordu asko pasatuko dituzu lanean. Familiarekin egoteko denborarik ba al duzu?**

Familia oso garrantzitsua da, eta seguru aski nahiko nukeena baino denbora gehiago eskaini behar izaten diot lanari. Baina hori niri eta jende askori gertatzen zaigu. Garrantzitsua da antolatzea eta gauza batzuei duten garrantzia ematea; bestela, konturatu gabe pasatzen dira urteak, eta hor gauza asko galtzen dituzu. Zailtasunekin, oreka hori mantentzen saiatzen naiz; talde lanean, emaztearekin batera.

**Bilduren Foru Gobernuak egindako aldaketa nabarmenetako bat Aberastasunaren Zerga izan zen. Iritsi orduko erreformatu du zuk zuzentzen duzun ogasunak. Ez al zituen emaitza onak eman?**

Hasieratik helarazten saiatu garen mezua izan da promozio ekonomikoak eta jarduera ekonomikoak duen garrantzia gure ongizate mailari eusteko. Herri bezala ekonomikoki sendoak izan behar dugu, gure ongizate maila babesten duten zerbitzuak finantzatzeko gaitasuna izan behar dugu. Europako puntako herrial-

de horien pare izatera heldu bagara, atzera begiratu besterik ez dugu zer errejeta izan dugun. Nabarmena da zer garrantzitsua izan den enpresen sarea. Errejeta bera mantentzea da. Hau da, jarduera ekonomikoak eta kalitatezko enpleguak emango digute aberastasuna denoi. Orduan, saiatu ginen identifikatzen zerk egiten zion kalte horri.

**Zehazki, zerk egiten zion kalte?**

Guretzat aberastasunaren zergan bazegoen aspektu bat horren kontra zihoana, eta zen, zehazki, enpresen partaidetza. Enpresen partaidetzak eragin handiena zuen enpresari txiki-ertainengan, eta guk, batez ere, azken urteetako zailtasunak pasatu eta gero, egin behar duguna da haiei lagundu, eta, nolabait, bultzatu arriskuak hartzea eta proiektuak bultzatzea. Hor iruditzen zitzaigun hori karga bat zela. Gure helburua zen erreformak diru bilketa aldetik eraginik ez izatea. Errentaren kanpaina une honetan dago martxan, eta ditugun aurreikuspenen arabera, bi milioi eta erdi pasatxo gehiago izango ditugu aurten. Helburua da Gipuzkoa aberatsagoa izatea, guztiok aberatsagoa izatea; eta aberastasuna da gaur egun dugun ongizate maila defendatzea.

**Ez duzu uste arriskuan dagoenik gaur egungo ongizate maila?**

Ongizate mailan edo desberdintasunen mundu mailan presio handia dugu. Mundu mailan nolabaiteko mugimendua dago ezberdintasuna handitzeko, eta gu ez gara hortik kanpo bizi. Noski, ez da gauza bera nondik hasten zaren. Gu hasten gara oso leku onean, ongizate maila oso handiarekin. Ikusi besterik ez dago hemen nola funtzionatzen duen Osakidetzak, hezkuntzak... Guk zerbitzu pila bat ditugu oso-oso ondo funtzionatzen dutenak, eta apenas kostatzen zaizkigunak. Niri pena emango lidake hori orain ez baloratzeak. Askotan

gauzak baloratzen ditugu galtzen ditugunean. Hori mantentzeko, ekonomikoki indartsuak izaten jarraitu behar dugu, eta diru bilketa behar dugu horretarako. Eta, baita ere, iruzurraren aurkako borroka indartzea.

### **Iruzur fiskalari aurre egiteko, 3 urtetan 45 langile kontratatuko dituzue Foru Aldundian. Hainbesteko beharra al dago?**

Nik uste dut baietz. Ez gara behin ere gizarte garatua izango zentzu horretan ez badugu aurrerapausorik ematen. Benetan beharra dugu denok tokatzen zaiguna jartzeko, diru horrekin zerbitzu publikoak finantzatzeko, eta, beraz, gure ongizate-maila defendatzeko. 45 beharrezkoak dira? Iruzurra dator egunerokotasunetik jarduera handienetara; espektra oso handia da. Gure plan estrategikoa begiratu gero, lehenbiziko xedea da iruzurraren kontrako borroka; eta, beraz, kontsekuente izan behar dugu. Eta kontsekuenteak izateak esan nahi du baliabideak jarri behar ditugula; bai baliabide materialak –teknologian inbertsio garrantzitsuak egin nahi ditugu, prozeduretan...–, baina pertsonak ere behar ditugu. Eta hortik apustu garrantzitsu hori. Aurten bertan espero dugu hamahirurekin martxan hastea.

### **Orain gutxi argitara eman dituzte Panamako zerrenda**

### **ezagunak. Herritarrentzat eredu izan beharko luketen pertsona horiek iruzurra egiten badute, ez dute gonbita egiten zerga betebeharrak borondatez betetzeko.**

Hala da. Nik irakurketa positiboa egiten dut Panamako-eta istorio horiekin guztiekin. Egia da gazitik eta gozotik duela. Baina nik irakurketa positiboa egiten dut, izan ere, nabarmentzen dena da gero eta bide estuagoa dagoela, gero eta zailagoa dela iruzurra egitea. Eta gaur ez bada jakiten bihar jakingo dela; eta, gehienez, bihar-koa pasatuta. Hori gertatzerik nahi ez badugu, egunerokotasunean bi gauza egin behar ditugu: alde batetik, ez egin gaitzesten ditugun jokaera horiek, eta, baita ere, gaitzetsi ikusten ditugunean. Eta hori oraindik asko kostatzen zaigu. Herritarren kontzientziarian badago zer egin. Europa Iparraldeko kulturetatik inportatu beharko genuke gaitzespen maila hori. Ez da bakarrik norberak ez iruzurrik egitea; baizik eta besteren bat ikusten badugu, salatzea. Oraindik pauso hori falta zaigu. Kontziente izan behar dugu iruzurra egiten duena gure ongizate mailaren kontra doala, izan handia, txikia edo ertaina.

### **EAJ Gipuzkoako Diputazioan PSE-EErekin koalizioan ari da. Zer moduz doa haiek lankidetzan?**

Ondo. Benetako elkarlana da, eta talde bezala funtzionatzen dugu. Niretzako garrantzitsuenak da gobernu bezala eraginkorrak izatea, eta gauzak bultzatzea.

### **Ez duzu afiliazio politikorik, nahiz eta EAJrentzat lanean zabilzan. Independentzia izateak ba al du balio erantsirik politika egiteko?**

“Gobernu zein ogasun mailan oso talde indartsua osatu dugu”

“oso-oso ondo funtzionatzen duten zerbitzu pila bat ditugu”

Ba, ez dakit. Baietz uste dut. Neuregatik ezin dut hitz egin, baina beste batzuk ikusten ditut, eta gaitasunen bat baldin badute, taldea eta proiektu indartsu bat osatzeko duten ardura da. Ona da arlo eta pentsamolde desberdineko jendea elkartzea, baina denak helburu berarekin eta elkarlanean. **Azpeitian, Hitzartu herri plataformak deituta, euskal estatu independenteari buruzko herri galdeketa izango da, ekainaren 5ean. Zer**

### **iruditzen zaizu erabakitze-ko eskubidea gauzatzea?**

Nik uste dut ariketa sana dela jendeari galdetzea biharko egunean zer izan nahi duen, beti dela positiboa, eta beti dela ona.

### **Joango al zara bozkatzera?**

Bai, joango naiz.

### **Asko galdetzea ez bada, zer bozkatuko duzu?**

Baina botoa ez al da izaten norberarena? Pribatua? Niri bai, gustatuko litzaidake biharko egunean herri bezala gaitasun gehiago izatea, baina, horretarako, aurrerapausoak eman behar ditugu, eta gure esku dago aurrerapauso horiek ematen jarraitzea. Errezeta bakarra dago: lan asko egin, ahal bada gutxiago eztabaidatu eta gauzak egin. Hitzetatik ekintzetera pasatu. Horrela eginez gero, aukeraren bat izango dugu aurrerapausoak ematen segitzeko.

### **Hiru probintziarekin, laurekin, zazpirekin... bakoitzak ulertzen duen moduan. Euskal estatu independente bat ekonomikoki bideragarria dela uste al duzu?**

Halako zerbait planteatzen hasteko, ekonomikoki sendoak izan behar dugu. Nik uste dut aurretik bete beharreko baldintza bat dela. Ekonomikoki indartsuak ez bagara, nik uste dut planteamendua bera ere askoz zailagoa dela. Beraz, nik esango nuke aurretik egin beharreko lan bat dela.★

**Ingelesa 1. Urrietik aurrera**

**Kids&Us. Inaugurazioa ekainak 18an.**  
Ingelesa modu naturalean 1. urtetik aurrera.

**Kids&Us Azpeitia**  
Loiolako Ignazio Etorbidea, 12  
20730 Azpeitia  
T. 71 777 4567  
azpeitia@kidsandus.es

azpeitia.kidsandus.es

# 1, 2, 3... Iraurgi

**O**rain dela urte batzuk, Iraurgi saskibaloitza taldean hainbat lan egiten saiatu nintzen, hobeto edo okerrago, saltsa askotan aritu nintzen, ahal nuena ematen. Urteak aurrera, beste bide bat hartu nuen, akaso neure burutik gertuago zegoen bidea. Azken denboraldietan, sarri ikusi ditut prentsan Iraurgiren lorpenak, gora eta gora egin dute etenik gabe, gailur batzuk zapalduz. Lorpen guzti horiek, argazki horiek, laudorio eta loreak, atzetik izugarritzko lana dute, batzutan emaitzak datoz eta beste batzutan ez, baina lana antzekoa da, akaso aldatzen dena, lanerako motibazioa izan daiteke.

Garai hartan egin nituen lagun asko geratzen zaizkit oraindik, lagun izenarekin lotzen ditudanak, oraindik elkarren arteko konplizitate mantentzen dugunak, eta tarteka parrandaren bat egiten dugunak elkarrekin. Batzuk, bizitza nola den, ezinbesteko lagun ditut, Iker, Eider. Ezingo nituzke ene bizitzatik urte haiek kendu, ezta ametsik txarrean ere, orduan, eta batik bat ondoren, eman didatena ez nukelako aldatzerik nahi. Ezagutu nituenean zuten adinarengatik izan daiteke, edo beraiek ziren bezalakoak zirelako, orduan nire bizitza zegoen egoerarengatik, edo dena ongi amaitu zelako, baina posible da besterik gabe, jende on ugari elkartu izana, kasualitatez. Inoiz ez naiz ezertan irabazle izan, eta urte haietan, talde honi esker, aurrenekoz gauzak irabazi nituen, baina emaitzak alde batera utzirik, garrantzitsu sentitu nintzen, talde baten zati eta zerbaiten eragile. Sarritan, kiroldegira joaten naiz, eta han ikusten ditut batzuk oraindik jokatzeko, beste batzuk entrenatzaile lanetan, edo ikusle. Kanpotik ikusita xelebre xamarra dirudien arren, badakit besarkadaren bat jasoko dudala, adarra joko didatela eta diedala, irribarreraren bat aterako didatela eta jaurtiketaren bat egingo dudala, nahiz eta abilezia handirik ez izan.




|||||||||egoitz arruti||||

|||Mundu bat ezagutu nuen, eta esperientzia itzela izan zen ondoren neure proiektu asko aurrera ateratzeko

Hasieran, lurgiren laguntzaile modura; ondoren, Davidekin, estadistikak hartzen; Xabirekin gazteen preparazio fisikoa lantzen; garagardo azokan; Gipuzkoako selekzioan esku bat botatzen. Mundu bat ezagutu nuen, lana egiteko modu bat, saskibaloiaz apur bat ikasi nuen, ez asko, eta esperientzia itzela izan zen ondoren neure proiektu asko aurrera ateratzeko. Esan dezaket, egun, han jasotako lekzio ugari ditudala zutabe, eta eskerrak ematea besterik ez zait geratzen.

## Merezitako lekuan

EBA ligara igo direnen argazkia ikusi dut, eta aurreko urtean, neskek LF2-ra igotzean ikusitakoarekin gertatu zitzaizkidanaren antzera, neure lizentziatxo hartu dut pozteko, beraien pozaren zati bat neuretzako hartzeko eta harro sentitzeko beraiengatik. Ongi mereziak dituzten lorpenak dira, herriko jokalariz eta entrenatzailez osaturiko taldeak, apurka apurka beraien eskailerak igotzen joan direnak, duten maila erakusteko aukera izan dutenak, orain tokatzen zaien erakuslelhoan daude.★



# Amets bat dut

**H**errien benetako tragedia ez da gobernu autoritarioen oihua, herritarren isiltasuna baizik". Martin Luther King-en hitzak dira horiek, eta mende erdia baino gehiagoren zama dute gainean. Giza eskubideen defentsan jardun zuen Ameriketako Estatu Batuetan, eta bere borroketako bat izan zen guztientzat, zuri zein beltz, boto-eskubidea eskatzea.

Ez da alferrik igaro denbora; edo, agian, bai. Gure isiltasuna ere, 2016an, ez da nolana hikoia. Gobernuen gezurrak, lapurretak eta iruzurrak normalizat hartzen ditugu dagoeneko. Kexatzen garela esango du zenbaitek, eta arrazoi dute: kexatu edozerengatik egiten gara, baina ez dakigu pertsona egokien aurrean kexatzen; eta kostatu egiten zaigu irtenbideak proposatzea. Erosotasuna da, edo harria beste batzuen bizkarrean uzteko joera. Ziur aski, hala izan behar duela erakutsi digutelako beti.

Luther Kingek Amets bat dut esan zigunetik 53 urte pasatu dira, eta ez gara konturatu ere egin. Hezkuntza, enplegu, etxebizitza eta bizitzeko baldintza duinak aldarrikatu zituzten abuztuaren 28 hartan, eta badirudi atzoko kontua dela. Bizitzaren iheskortasuna ote, edo historiaren ibilbide ziklikoak. Ez dakigu seguru, edo ez dugu jakin nahi.

2016an, hemen jarraitzen dugu, boto-eskubidearen alde lanean, geurea dena eskatzen. Isiltasunetik atera nahi dugu, eta gobernuari esan nahi diegu geurea dena aldarrikatuko dugula. Luther King-ek bezalaxe, ez dugu bilatuko konfrontaziorik, elkarlanean egingo dugu: desberdinak errespetatu eta maitatuta.

Hemendik pare bat egunera dugu aukera Azeptian, Euskal Herriari eta nahi duen orori erakusteko herritarrok izango garela herri honen jarraibidea osatuko dugunak. Guk ere amets bat daukagu, baina amets izateari utzi nahi diogu. Guk ere bozkatzeko eskubidea gauzatuko dugu Azeptian, ekainaren 5ean,



eneritz albizu

Amets bat dut: zu kexatzea, oldartzea, baretzea... herri honen norabidearen zati erabakiorra zarela ulertzea

eta borondatea izango da gure zalaparta bakarra.

## Marko berria

Behar den lekuan, behar den bezala, kexatzeko edo goraiatzeko unea izango dugu igandean. Erabat esparru demokratikoan galdetuko digute herritarroi nahi ote dugun izan euskal estatu independente bateko herritarrok. Hastapena izango da igandekoa; izan ere, erabakitze eskubidea dago herri galdeketeren muinean. Galderaz, erantzunaz eta emaitzaz harago, herritarrok gure iritzia argi azaltzeko aukera izango dugu. Marko berri bat ezarriko dugu, horrela; hemendik aurrera ere, bidea izan dezagun erabakitze zer nahi dugun eta zer ez.

Sinplea da: norbanako bezala hartzen ditugun erabakiak, talde bezala hartzera goaz. Pertsona bezala aukeratzen dugu zer dugun gustuko eta zer ez, eta herri bezala gauza bera egiteko bidea irekitzera goaz. Hori ez da politika hutsala, hori demokrazia da. Ez da

ekainaren 5ean ezer bukatuko, hasi egingo da.

Nik ere amets bat dut: zu kexatzea, oldartzea, baretzea... herri honen norabidearen zati erabakiorra zarela ulertzea. Gu garelako, eta ez haiek. ✘





# NOLA IKASI INGELESA MODU NATURALEAN URTEBETETIK AURRERA?



## \* Zertan datza Kids&Us metodologia?

Kids&Usen ama hizkuntza ikasten den bezala ikasten da ingelesa. Hori da Kids&Usen abiapuntu eta oinarria, haurrek urtebete dutenetik ingelesa ikasteko metodologia berritzailea. Aski frogatua, gainera, 10 urteko esperientziak bermatzen baitu metodoa. Kids&Usek ingelesa ikasteko eskaintzen duen moduak betidaniko sistemarekin hausten du. Gero eta familia gehiagoren kezkarri erantzuna ematen dio, hau da, beraien seme-alabek ingelesa ikatea nahi duten guraso asko eta askori.

**"Jaiotzean, haurrak prest daude hizkuntza jasotzeko, txoriak hegan egiteko prest dauden moduan."**

*Natàlia Perarnau*

## \* Zergatik hasten dira eskolak urtebetetik aurrera?

Kids&Us metodoarekin, urtebetetik gorako haurrak hizkuntza berriarekin modu orokorrean jartzen dira harremanetan. Beraien adinari egokitutako egoera zein testuinguruetan eta inongo mugarik gabe. Honela, umek txiki-txikitatik duten ikasteko gaitasun osoa aprobetxatzen dugu. Ipuinen, jolasen, abestien eta dantzen bidez hizkuntzan murgiltzen dira erabat, eta guk geuk sortutako material pedagogikoak murgilaldi horren osagarri dira.

## \* Maite, zerk bultzatu zaitu Azpeitian Kids&Us zabaltzera?

Seme-alabak ditugunean, haientzat onena nahi izaten dugu beti. Nirea izan nuenean, oso argi neukan ingelesa modu naturalean, berez, ikatea nahi nuela, euskara ikasten dugun moduan. Kids&Usen berri jakin nuenean, nire semeak metodologia horrekin ikas zezala nahi izan nuen, eta hurbilean zentrorik ez zegoenez, nik neuk zabaltzea erabaki nuen, semeari eta Azpeitiko eta Azkoitiko gainerako haurrei aukera emateko.

## \* Noiz zabalduko duzue zentroa?

Inaugurazioa ekainaren 18an, larunbatez, egingo dugu. Ilusioz beteta gaude, lanean gogotik eta gogotsu, egun horretan gurasoak ohar daitezzen zer-nolakoa den gurekin ingelesa ikasteko esperientzia. Dagoeneko 200 ikasletik gora ditugu, eta haien gurasoek sinesmen osoa dute gure metodo pedagogikoaren onura eta ahalmenetan.



*Maite Etxaniz Kids&Usen.*

Hori dela eta, ate irekien jardunaldi bat prestatzen ari gara, metodoaren berri ez daukaten gurasoek aukera izan dezaten eskola bisitatzeko eta metodoa bertatik bertara ezagutzeko.

Egun osoan ipuin kontalariak, aurpegi-margotzaileak, opariak eta ezustekoak izango ditugu. Eta nola ez, inaugurazio ekitaldietan ohikoa denez, bisitan datozen guztiek edukiko dute zer jan eta zer edan ere.

**Informazio-saioen** eta egingo ditugun jardueren berri jakiteko interesa duten gurasoek hainbat bide dituzte horretarako: [www.facebook.com/KidsandUsAzpeitia](https://www.facebook.com/KidsandUsAzpeitia) atarian kontsultatzea, **71 777 4567 telefonora** deitzea edo helbide honetara email bat bidaltzea: [azpeitia@kidsandus.es](mailto:azpeitia@kidsandus.es)

## \* Non kokatuko da akademia?

Loiolako Ignazio Etorbidearen 12. zenbakian gaude, Aliur kafetegitik oso hurbil. Obrak bukatzen ari gara, eta dekorazioa oso deigarria izango da, bizipoza eta energia transmititzen duten kolore biziekin. Gainera, parke handi bat dugu zentroaren ondoan eta horrek aukera emango digu ikasturte osoan aire librean hainbat jarduera egiteko.



**Kids&Us Azpeitia**

Loiolako Ignazio Etorbidea, 12

20730 Azpeitia

T. 71 777 4567

[azpeitia@kidsandus.es](mailto:azpeitia@kidsandus.es)

[azpeitia.kidsandus.es](http://azpeitia.kidsandus.es)

  
**Kids&Us.**  
school of english

## HIZKUNTZ ESKUBIDEAK



Ainara Torvisco.

## ESANA DAGO

“Epailea etorri zitzaidan, eskua igo, eta negar batean hasi nintzen, ezintasunarekin”

AINARA TORVISCO  
Kick boxingeko  
Espainiako txapelduna

“Ofizio guztiak dira politak, baina gurea, idazleona, oso berezia da”

JOXEAN AGIRRE  
Idazlea

“Oso ona izan da denboraldia; mailaz igotzea perfektua litzateke. Falta diren partidetara etortzeko esan nahi nieke zaleei”

HODEI TENA  
Lagun Onak futbol taldeko kapitaina

**BEHERA. Euskara, ahaztutako osagaia.**

Sukaldeko robot honen erakustaldia iragartzeko herriko kaleetan jarritako kartel hauek gaizki idatzita egoteaz gain, gaztelania hutsean daude. 📧 **Uztarría**

**BEHERA. Euskara, bide bazterrean.**

Munategira bidean, errepide ertzean dagoen bide seinale hau erdoilduta, eta hizkuntzari dagokionean, zahartuta dago. Noizko euskaraz berri bat? 📧 **Uztarría\***



"KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"

**URBISTONDO MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea      20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

**PROXIMITY**  
CUSTOMER

**AIZPURU**

Tel.: 943 81 23 59      aizpuru@aizpuru.net  
Fax.: 943 81 22 81      www.aizpuru.net

Arretxe 17, 20730 AZPEITIA  
Zure autoak behar duen edozertarako!



|||||txetxu urbietta|||||

## Hi bizi haiz hi

**A**taunen sortu zen sasi-ber-  
tsolari-abelsari-kazetari, alegia,  
denetik pittin bat bai, baina ezer-  
tan osotasunera iristen ez den  
lagun jator batekin solasean ari  
nintzela bururatu zitzaizkidan: nor-  
tzuk ote dira Azpeitian, Forbes  
emozionaleko zerrendako top10-  
a osatzen duten xapoak? Bestela  
esanda, nortzuk ote dira gure he-  
rrian hobekien bizi diren hamar la-  
gunak? "Hi bizi haiz hi" esaten  
diegun horien artean hamar artis-  
tenak. Aukeraketak zehatza eta  
zientifikoa izan behar du, bapo ez-  
tabaidatu ondoren eztabaidarako  
zirrikiturik uzten ez duena. Irizpi-  
deak zehaztea ez da erraza. Zeri  
deitzen diozu zuk ondo bizitzea?  
Ondo bizi dela uste duena bene-  
tan ondo bizi ote da? Edo beti ne-  
garrez ari den hori ote da bera  
konturatu gabe ondo bizitzeko  
dena duena? Guztiz filosofiko ja-  
rrieta zerrenda egitea ezinezkoa  
da. Pragmatikoak izan gaitezen.  
Ni neu ondo, oso ondo bizi naize-  
nez, zerrendako hamaikagarren  
postuan kokatuko naiz. Orain he-  
rrian ni baino hobeto bizi diren  
hamar herritar aurkitu behar (ni  
baino hobeto bizi dena... galan-  
ta). Bati galdetu, bestearekin hitz  
egin, ogasuneko datuak ikertu,  
txartelen mugimenduak aztertu...  
lan astuna izan bada ere, pena  
merezi izan du. Zientzia hotz eta  
zorrotzak arrazoi eman dit. Hamar  
dira bai, hamar, Izarraitzen ni  
baino hobeto bizi direnak, Top10-  
a osatzen dutenak. Banan bana  
izen abizenak jartzera nindoan  
baina idazteko karaktereak agor-  
tu zaizkit. Bakar-bakarrik jakizue  
zazpi emakumeak direla eta hiru  
gizonak. Penak pena, arazoak  
arazo, erraza baita Azpeitian jai-  
ota ondo bizitzea. Aupa Lagun.\*


## IKUSTEKOA!



### ▲ LEGOREN STAR WARS SAILAREN ZALEA.

Sormen handikoa da Asier Itulain, 12 urteko gaztetxo. Legoren piezak bata bestearekin  
elkartu eta Star Warseko figurak osatzea du zaletasun. Ziento bat figura osatuta ditu, eta aitak  
duen dekorazio estudioan erakusgai izan ditu. Irudimena eta abilezia landuz bere figura  
propioak sortzeko badu gaitasuna. 📷📺 Ainitze Agirrezabala\*

## MAIATZEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



### Historia (ber)idazten

**ZORIONEKO IRAGANA.** Iraganeko gertakariak idealizatzeko eta gaur egungo egoera gutxiesteko ohitura dugula esango nuke. Historia gure erara makilatzen dugu, geure ideiak sendotzeko eta justifikatzeko edo garai bateko balore eta ideiak gaur egungo dekadentziarekin aurrez aurre jartzeko. Ez ziren hain onak eta ez gara hain txarrak, besterik gabe, bakoitza bizitzea tokatu zaion garaiaren semea da.



julen eizmendi



### Bizirik da Urolako tren

**JENDE UGARI MUSEOAN.** Ez nekien tren museoak horrenbesteko arrakastarik zuenik, baina dirudienetz etengabekoa da turisten joan-etorria. Azkenengo urteotan, Gipuzkoako turismoa izaten ari den gorakada herrian ere nabari da, antza denez.



### Aupa Lagun!

**DENBORALDI BIKAINA.** Azkenean saria izango du Lagun Onak 3. mailako taldeak egin duen denboraldi bikainak. 2.B mailara igotzeko play-off-a jokatzeko aukera izango dute Plablo Turrillasen mu-

tilek. Meritu handia du lorturikoak, eta are gehiago nagusiki etxeko jokalariekin osatutako talde bat izanda. Erronka zaila bezain polita dute aurrean, irabazteko asko eta galtzeko ezer ere ez.✘

## INKESTA

parte hartuko al duzu udalekuetan udako oporretan?

 Ainitze Agirrezabala

### KAIA ETXEBERRIA

11 urte



"Goñira noa, 13 egunerako. Nire lehengusua, gainera, txanda berean udalekuetan arituko da lanean. Hiru lagun goaz batera".

### GARAZI GURRUTXAGA

11 urte



"Inoiz hartu izan dut parte udaleku irekietan, baina ez naiz lo egitera

kanpora joan zalea. Aurten kuadrillan geure planak egingo ditugu, udalekuetara joan gabe".

### BINGEN TENA

10 urte



"Duela bi urte Ribadeora joan nintzen, astebete pasatzera. Aurten, udaleku irekietan eman dut izena; oso ondo pasatzen dut".

### UNAI URANGA

10 urte



"Udalekuetan ez dut inoiz hartu parte. Lagunartean egingo ditugu

planak eta kanpoko igerilekura joan eta futboleko ibiliko gara".\*



## Hitza hartu genueneko

**A**mama! Kontau berriz, faorez!

74 urte ditut, orduan baino 50 gehiago. Ilea zuria-goa daukat, ziur, azala berriz, ximurragoa. Ez dakit zorionsuagoa naizen, ezta jakitunago ote naizen ere. Baina badaukat barruan zerbait urteotan aldatu ez dena: istorioak kontatzeko grina. Nola utzi, bada, gure oroimenean hiltzen historia egin genueneko hura? Entzun dezatela gure ondorengoek hitza hartu genueneko.

"Bi mila eta hamaseigarren urtea zen...".

*Bi mila ta hamaxe? Amama... ze zahartzea, ez?*

...

*Baaaale, barkau, segi!*

"Bi mila eta hamaseigarren urtea zen. Ekainaren 5a, igandea. Mantangorri ere geurekin zen egun hartan, bere festari egun bat luzatzeko pozak. Eguna euritsua zen –azpeitiarrontzat hain egun berezia izanik, ezin bada bestelakorik egin– baina abestiak zioen bezala han genbiltzan gu 'hau egun



### Eider bereziartua

ederra, euria ari du, baina ederra da' kantatuz. Bizitzan lehenengo aldiz hautes-mahaira zihozten langileek irribarrea ahoan zutela ekin zioten egunari. Bozka ematera zihoztenak ere gustura ikusi nituen Perretxikoko eskailerak igotzen. Bozgorailuek goizean goiz esnatu gintuzten alarma hotsarekin, baina, inor haserretu aurretik "etorkizunari atea, gure hitzaren giltzaz" gaineratu ziguten. Egun handia zela gogorazari ziguten."

*Egun haundiye...*

"Bai, egun handia izan zen maitia. Ez lortu zen erantzunagatik, ordea. Denok elkarrekin hilabeteak joan eta hilabeteak etorri lan egin genuelako aukera hura izateko. Gure hitza entzun zezaten borroka egin genuelako; ukabilik gabe, gainera. Zahar eta gazte, haur eta heldu, emakumezko zein gizonezko, neska nahiz mutil, bai ala ez; guzti hori albo batera utzi eta Azpeitiko herriak historia idazteko bat egin zuelako. Lehengo aldiz hitza hartu genuelako."\*

**Gal detzen hasita, lortuko al du lagun onak futbol taldeak Espainiako Bigarren B mailara igotzea?**  Uztarria

## Jabetze ahotsa eta dantza

**I**ganderoko mezetan Ama Birjinaren irudia erakutsiz, aldaretik apaizak esan ohi zigen: "Emakumeok, hau da zuen eredu, hau bezalako izan behar zarete: garbiak, bekatu gabekoak; zuen Jaungoikak eta senargaiak horrelakoak nahi zaituztetelako". Eta jarraian emakume bekatarien kontrako diskurtsoa hasten zen. Mezua argia zen: Ama Birjinaren kopia izan ezean, inork ez gintuzkeela maitatuko. Halakoa izan zen nire formazio sentimental. Beldurra erabiliz, elizak irakatsi zidan nola izan emakume heldua eta ona.

Maiatzako Azpeitiko emakumeen festan eliza sekularizatutako eszenatokitik Amaia Garmendiak eta bere taldeak askatasun sexuala geneukala abestu eta aldarrikatu zuten. Aspaldian aldarea zegoen lekutik beste eredu bat proposatu zuten. Aldi berean, "las penas son de nosotras, las vaquitas son ajenas" abestuz, botere-estruturak mantentzen dela gogoratu ziguten ere.



### Miren alcedo

Boterea gure eskuetan ez dagoenez, emakumeok orain ere baditugu beldurra eta egunerokotasuna gure erara erakitze arazoak. Batzuk agerian daude: lanean zein etxean abusuak pairatzeko arriskuan gaude; kalean emakumeon kontrako erasoak multiplikatu dira. Tarteka, ikasitako jarrerak txikiago-tzen gaitu eta beldurra ezintasun bihurtzen da: gauzak ondo ez egiteko, gutaz itxaroten dutena ez betetzeko...

Baina, nahiz eta beldurrak izan, emakumeok ez gara koldarrak. Elkarrekin gogoeta egiteko eremua aurkituz gero, gure buruaz eta munduaz jabetzeko gai gara. Topatzen ditugun konplizeekin ausartzen gara denetarik egitera, eszenatokira igotzera eta Bollywoodeko kolorea eta poza ekartzera ere bai. Aurreko egunean ikusi genuen bezala, bronkitisak jota egon arren, emakumeon ahots irmoa entzun zen Sangustinean.

Gora emakume ausartak! Gora Azpeitiko Emakumeen Txokoak!\*

HAU HOLAXEENK



## Garaipen txikien mundua

**H**urritz, makarrak ezkerreko begia ixten dizu. Belaontzi batetan zabilta itsaso berrien bila haizea lagun; bandera beltz bat daramazu mastaren puntan. Francis Drake zara, Etienne Pellet zara, Jean Lafitte zara lurmutur batetik bestera dabilen kortsarioa.

Gogorra izan da azken borrokaldia. Arka-buzekin egin digute eraso. Kanoi hotsak, bol-bora usaina. Irribarrea galdu duzu, sukarrak hartu gaitu. Lehendabiziko ama, gero zu eta azkenik neu..., gupidagabea izan da jazarpena. Baina lortu dugu erasoaldiari eustea: ba-doaz gripearen itsasontziak borroka gogorre

aurre egin ondoren. Batek masta hautsita darama, besteak oihalak zulatuta. Bira erdia eman, popa erakutsi eta gure uretatik ihesi doaz. Barkuko zirujauak bitakora kaielean jaso du gertakaria: B Influentza Armadarekin nahi gabeko enkontrua.

Orain, barealdian, barrika onenetik beteko ditugu edalontziak. Horrelakoa baita bizitoki egokitu zaigun ozeanoz inguratutako mundu hau, garaipen txikien eta porrot handien mundua. Bestelakorik ere izango da sabaiko milioika izarren artean biraka, garaipen handien munduak eta porrotik gabekoak, baina gurean



|||||||xabi borda|||||||

garaitza apalak baino ez topa eginez ospatzeko.

Hurritz, ekainaren 5ean ere Azpeitian, Urrestillan, Nuarben... godaletak Karibeko ronik gozonenarekin beteko ditugu. Ederra izango baita E5-ekoa! Egun horretan urteetako ukazioari bataila txiki-txiki bat irabaziko diogu: erabakitze eskubidea geurea dela erakutsiko dugu eta geuk nahi izan dugun galderarekin galdetuak izan gaitzkeela aldarrikatu. Emaizta bat edo bestea izan, zerura jasoko ditugu edontziak eta irriz eta oihuz itxaropenaren hondartzan egingo dugu jai gaugiro politean.\*

## Erotikan Plax!



||||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitz-eko kideak)|||

**S**exualitatea hizpide hartuta solastu da Amaia Garmendia.

**Ezagutzen ez zaituenik ez da izango herrian. Ederra bezain nekagarria al da?**

Batzuetan bai. Adibidez, iritzia ematean beti duzu aldeko eta kontrako jendea. Baina, oro har, jendearekin harreman ona dut.

**Amaiak lasai hitz egiten al du sexualitateaz?**

Momentuaren eta pertsonaren arabera. Oro har, nire inguruan lasai hitz egiten dut.

**Zure haurtzaroan, nola bizi zenuen sexualitatea?**

Gure etxean sexualitateari buruz ez zen inoiz hitz egin. Hilekoa jaitsi zitzaidanean ez nekien zer zen ere. Gaizki pasatu nuen.

**Bikotekidea egunkariko kontaktuen atalari esker ezagutu zenuen...**

Duela 16 urte, *Gara*-ko 'harremanak' atalean irakurri nuena gustatu eta deitu egin nion. Hiru hilabetez telefonoz hitz egiten egon ondoren, San Sebastian bezperan agertu zen Azpeitira. Eta orain arte!

||||**AMAIA GARMENDIA**||||

**Jai.** 1953ko otsailak 18.  
**Herria.** Azpeitia.  
**Bizitokia.** Azpeitia.  
**Langabea.** Gitarra irakaslea eta garbitzailea.



**Emakume batekin zibilez ezkondu den lehenengo emakume azpeitiarra zara...**

Bai, alajaina, baina pena handiz, elizaz ezin genuelako ezkondu. Ni oso elizkoia naiz, nahiz eta gauza batzuetan desadostasunak izan. Aita Santu berriarekin aldaketak izango ditugun esperatza dut.

**Lesbiana izatea erraza da azpeitian?**

Oso zaila. Garai hartan bai, behintzat. Txutxumutxu asko ibiliko zen. Behin baino gehiagotan komentatu zidaten ulertzea nahi luketela, baina ez zutela normaltzat ikusten. Gaur egun zorionez gazteak beste pentsamendu batekin hazi dira.

**Animalia zalea zara. Nola ikusten duzu gizakia eta animalien arteko harremana?**

Ari gara harremanak hobetzen,

baina tratu on gehiago behar dugu, zor diegu. Gauza asko ematen dizkigute animaliek, askotan zenbait pertsonen baino gehiago.

**Gustuko jaki bat...**

Patata tortilla, baratzeri ta tipula.

**Usain bat?**

Erromeroa.

**Txikitako une goxo bat.**

Anaia bikiarekin jaunartzea egin nuen eguna.\*

||||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua  
[www.azpeitikoudala.eus/sexu](http://www.azpeitikoudala.eus/sexu) 688897920  
Hitzorduak, ekainean: hilaren 1ean eta 29an (16:00-19:00) eta 18an (10:99-13:00).

# Hitza hartzeko prest

‘Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?’. Galdera egin dago eta azpeitiarrek dute erantzuteko aukera, ekainaren 5ean. 📌 Mailo Oiarzabal

**H**itzartu elkartearen ibilbidea iritsi da azken txanpara. Gure Esku Dago herri ekimenak hauspotuta, Azpeitian erabakitzeko eskubidea aldarrikatzetik gauzatzerako dagoen bidea egin eta herri galdeketa antolatzeko sortutako gizarte taldeak lan asko egin eta eragin du, urtarrilaren 16an Soreasun agerraldi jendetsu hura egin zuetetik. Herri galdeketa ekainaren 12an egiteko helburuarekin hasi zuen bidea Hitzartuk eta, azkenean, astebete aurreratu behar izan dituzte planak, Espainiako Kongresurako hauteskunde berrien kanpaina badaezpada ere saihestuz. Horrela, ekainaren 5ean izango da azkenean azpeitiarren txanda, hitza hartuz eta botoa emanez, urtarriletik airean den galderari erantzuteko: *Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?*

## Ekainak 5: zer, non, nola

Herri galdeketa antolatzaileek ekainaren 5eko bozketak “berme guztiak” izan ditzan nahi dute; ez dira ohiko hauteskundeak izango, baina bozketaren prozedura oso-oso antzekoa izango da. Egun horretan botoa ematera joango direnentzako baliagarria de informazioa da jarraian datorrena.

## ‘BAI’, ‘EZ’ EDO ZURI.

**Hiru erantzun aukeran.** Sarreran aipatutako galderari erantzuteko bi boto paper izango dira, *Bai* dioena eta *Ez* dioena. Zuri



Maiatzaren 28ko lipdubeko parte-hartzaile baten eskua, bosta irudikatuz. |||Hitzartu



bozkatzeko aukera ere izango da, ordea: paper zuria edo gutun-azal hutsa erabili behar da horretarako. Bestelako mezu edota idatziak dituzten boto paperak, berriz, balio gabetzat hartuko dira, edozein hauteskude-tan bezala. Boto paperak eta gutun-azalak etxe guztietara banatu dituzte, eta bozketa lekuetan ere egongo dira.

### BOZKETA LEKUAK/ORDUTEGIA.

**Zortzi gune aukeran.** Hauteskudeetan erabiltzen diren eraikin publikoak ez ditu erabiliko Hitzartuk, baina horietatik gertu jarriko dituzte mahaiak. Zortzi toki hauetan, hain zuzen ere: 1. Udaletxe azpian; 2. Kaleko Bai-gera elkartearen aurrean; 3. Kaleko ludoteka parean; 4. Betharram aurrean; 5. Perretxiko-Oktogonoaren atarian; 6. Euskal Herriako Karmelo Etxegarai aurrean; 7. Sanjuandegiko Jose Antonio Agirre plazan; 8. Urrestillako plazan. Beste bozketa ez bezala, herritarrek nahi duten mahai aukeratu ahal izango dute botoa emateko; hala ere, besteetan bozkatu ohi duten tokian bozkatzeko aholkua eman du Hitzartuk.

Ordutegiari dagokionez, 09:00etan ireki-ko dituzte mahaiak eta 20:00etan itxi.

### 16 URTE ETA ERROLDATUTA.

**12.142 azpeitiar.** Azpeitian erroldatuta dauden eta ekainaren 5ean 16 urte beteta dituzten pertsonak eman dezakete botoa. Herri galdeketa izanda, antolatzaileek ezin dituzte erroldaren datuak baliatu, baina 12.142 dira aipatutako bi baldintzak bete-tzen dituzten herritarrak.

### BEHARREZKO AGIRIAK.

**Aukera ezberdinak.** Hautesle-erroldarik

## ||| JAI GIROAN |||||

Erabakitzeko eskubidea festa giroan gauzatzea nahi izan dute antolatzaileek eta, horrela, kultur eta festa egitaraua ere prestatu dute ekainaren 5erako.

### PLAZA NAGUSIAN.

**12:00.** Joseba Tapia eta Morau.

**12:45.** Bartzelonako 'castellers'-ak.

**13:15.** Ekitaldia.

**13:45.** Bertsolariak: Alaia Martin, Amets Arzallus eta Beñat Gaztelumendi.

**18:30.** Verrater.

**19:30.** Elektrotzula.

**20:15.** Itziarren Semeak.

**21:30.** Emaizak, balorazioak...

Amaitzeko, galdeketa kantua joko dute herriko musikariek.

### SANJUANDEGIN.

**Festetako egitaraua.** Sanjuandegiko festekin bat egin du herri galdeketa, eta egun horretarako duten jai egitarauarekin bat egingo dute, era berean, sanjuandegarrek galdeketaekin, goizean goiz hasi eta iluntzera arte.

### URRESTILLAN.

**12:30.** Dantzariak. Umeentzako txokoa ere izango dute

Horiez gain, bozketa leku guztietan izango dira trikitilariak, txistulariak eta kantu poteoa.\*

ezean, dokumentazioaren bidez egiaztatu behar dute boto-emaileek galdeketa parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten. Hauek dira balioko duten agiriak: 1. NAN agiria, bertan bizilekua Azpeitia dela ageri bada, eta NAN eta errolda agiria, hala ez bada; 2. Errolda agiria eta EHNA, pasaportea, gidabaimena, AIZa (NIEa) edo identifikatzeko balio duen argazkidun agiri ofizialen bat. Fotokopiarik ez dute onartuko, baina iraungitako dokumentuak bai.

Sistema informatikoa ere prest dute, boto-emaile bakoitzak botoa gehienez behin eman duela ziurtatzeko.

### BERME BATZORDEAK.

**Hiru lantalde.** Herri galdeketa jarraitu beharreko prozedura aztertze, eta prozedura hori bozketa egunean zuzen betetzen dela egiaztatze eta ziurtatzeko, kontrol batzordea, jarraipen batzordea eta begirale taldea ariko dira lanean ekainaren 5ean eta haren bueltan.

Begoña Garmendiak, Nagore Alkorta eta Alex Etxeberriak osatzen dute kontrol batzordea. Jarraipen batzordean, berriz, Laxaro Azkune, Inaxita Bereziartua, Miren Odriozola, Elixabet Campos, Maria Jesus Aranburu, Alberto Frantzesena, Lourdes Goenaga, Iñaki Errazkin, Joxe Mari Galarraga, Begotxu Azkue, Libe Agirre, Mirari Bereziartua, Aitzol Iparragirre, Luxio Galarraga, Ane Gil, Marian Agirre eta Josetxo Aizpuru daude. Azkenik, galdeketa egunean Azpeitira etorriko den begirale taldea bederatzi lagun hauek osatuko dute: Paul Rios, Eguzki Urteaga, Joxe Arregi, Xose Gonzalez, Xoan Muiño, Mari Luz Esteban, Lorea Agirre, Elisenda Paluzie eta Joseba Felix Tobar.\*

Udaberri honetan  
#Lorazaiter

**ZIOZKETAK**

KIMU BAT 25 urte +  
Urrestila bidea. Azpeitia  
943 15 00 85

KIMU BAT  
GARDEN *bertita!*

## ▼ AURKEZPENA.

Urtarrilaren 16an aurkeztu zuten Hitzartu elkarteak, independentziaren gaineko herri galdeketa egingo duen gizarte taldea. Galdeketa datarekin batera, galdera zein izango den ere zehaztu zuten: 'Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar? Bai/Ez'. Aurkezpen ekitaldian presente izan ziren sentsibiltate politiko ezberdinetako herritarrek, hainbat talde eragileetako ordezkariak eta norbanakoak. 150 herritarrek baino gehiagok babestu zuten galdeketa euren sinadurarekin.



# Zakukada ekitaldi

Independentziaren gaineko herri galdeketa babesteko hamaika ekitaldi antolatu dituzte, urtarrilaren 16ko aurkezpeneko hartaz geroztik. 📌 Ainitze Agirrezabala

---



## ◀ SINADURA BILKETA.

Erronka argia plazaratu zuen Hitzartu elkarteak, urtarrilaren 16an: bi hilabeteko epean, 1.500 sinadura biltzea. Hilabetera, Azpeitian erroldatutako 16 urte edo gehiagoko sinatzaileei esker, lortu zuten langa hori pasatzea. Argazkian, Txikiteo Elegante Egunean, hainbat herritar atxikimendua ematen. Martxoaren 12ra arte jarraitu zuen Hitzartuk sinadurak biltzen, eta guztira, 2.296 sinadura bildu zituzten.

## ▶ KRISEILUEN GAUA.

Martxoaren 12an eman zioten amaiera erabakitzeko eskubidearen alde abian jarritako galdeketaaren aldeko sinadura bilketari. Mila lagun inguru hurbildu zen Zelai Luzera euren kriseiluak aireratzera.



## ▶ ARGAZKI ERRALDOIA.

Sanjuandegiko ehundik gora bizilagunek argazkia atera zuten igerileku aurrean, ekainaren 5ean egingo den independentziaren inguruko herri galdeketa babesteko. Martxoaren 5ean atera zuten argazkia.





### ▲ LIPDUBA.

Herriko hamaika talde eragiletako ordezkariak eta ehunka herritar atera ziren kalera, maiatzaren 28an, erabakitze eskubidearen alde lipduba grabatzeko.



### ▲ BATZAR IREKIA, SOREASUN.

Herri galdeketara begira egin beharreko lanak, boluntarioen beharra, logistikagaiak, botazioen xehetasunak eta ekainaren 5era bitartereko antolatutako egitasmo ezberdinak azaldu zituen Hizartuk, apirilaren 16an. 150 herritar inguru hurbildu ziren.



### ▼ HERRI GALDEKETAREN HARIRA.

Hitzaldia eskaini zuten Vicent Partal katalanezko *VilaWeb* agerkari digitaleko zuzendariak eta *Berria* egunkariko zuzendari Martxelo Otamendik, maiatzaren 18an.

### ▼ ERABAKI FEST!

Herriko musikari, kantari, dantzari eta tabernarien artean egun osorako egitaraua antolatu zuten, apirilaren 30ean. Egungo rock taldeak eta aspaldian utzita zeudenak, eskaintza bakarrean gozatu ahal izan ziren, herriko tabernetan eta Sanagustinen. Egun hartan aurkeztu zuten, zuzenean, E5eko galdeketaren aldeko abestia: 'Hitza, erabakitzeo giltza'. Giro ederra izan zen kontzertuetan. Argazkian, Jotakie-ren kontzertua, Orkatzen.



### ▲ KIROL JAIA.

Ikasberri kirol elkarteak, Iraurgi saskibaloia taldeak, Lagun Onak futbol taldeak eta Xaputarrak xake taldeak antolatuta Kirol Jaia izan zen, maiatzaren 14an eta 15ean.





### ▲ **BALKOITIK BALKOIRA.**

Aldarria eta bertsolaritza eskütik emanda izan ziren, maiatzaren 13an, Erniarraitzek antolatutako 'Balkoitik balkoira' ekimenean. Besteak beste, Xebastian Lizaso eta Jokin Uranga balkoitik balkoira bertsotan aritu ziren, Perez Arregi plazan.

### ▼ **AUZOLANEAN EGINDAKO KANTA.**

Hitza, etorkizunaren giltza abestia sortu eta kantatu dute Azpeitiko musikari, abeslari, idazle, poeta eta bertsolariek. Herri galdeketa babestea du xede kantak. Guztira, 60 lagun inguruk hartu dute parte sorkuntzan, grabazioan eta bideoaren edizioan.



### ▼ **AZPEITIA-AZKOITIA ERRONKA**

XII. Izarraizko mendi lasterketaren barruan, independentziaren aldeko herri galdeketa babesteko Azpeitia-Azkoitia erronka izan zen, maiatzaren 7an. Azpeitiak irabazi zuen desafiota, 23 minutuko errentarekin.



## LAXARO AZKUNE ETA MAITE ARAMENDI Hitzartuko kideak

## “Erabakiz askatu nahi ditugu gure herriaren erabakitzeko eskubidearen korapiloak”

||| Independentziaren gaineko herri galdeketa atarian, “erabakitzeko eskubidea praktikan jartzeko” mezua eman dute Hitzartuko kide Laxaro Azkunek eta Maite Aramendik: “Botoa eman ahal duen guztiak botoa eman dezala”.

**Herri galdeketa ez dira eze-rezetik sortu. 2014an, lehen kolpea egin zuen Gure Esku Dagok, giza katearekin. Gero, 2015ean, Euskal Herriko bost futbol zelaietan ekitaldiak egin ziren. Horiek aldarrikapen egunak izan ziren, eta, orain, hitza hartzeko ordua da.**

**Maite Aramendi:** Hala da. Gure Esku Dagoren hiru urteko ibilbidearen baitan, salto egin dugu aldarrikapenetatik ekintzetara; salto borondatea izatetik, borondateari bide ematera; jauzi bidea irudikatetik, bidea egitera. Erabakiaren aroa hasi da, eta ekainaren 5ean azpeitiarrok hitza hartuko dugu.

**Laxaro Azkune:** Gure Esku Dagok urrian egin zuen batzarra deitu gintuzten, eta han geundenak, nonbait, ameslari xamarak izan, eta Azpeitian herri galdeketa egitea posible zela ikusi genuen. Horixe izan zen gure abiapuntua.

**Herriar desberdinengana iristea zenuten helburu. Lortu al duzue?**

**MA:** Hein handi batean bai, baina oraindik ere badaude sektore batzuk iritsi ez garenak.

**LA:** Gure erronka da, alde batetik, ahal den eta jende kopuru handiena bozkatzera animatzea, baina nire zalantza da, ezaren planteamendurekin dagoenak ez ote duen esango: ‘bozkatzera joanda, nolabait beraien jokoan sartzen naiz’. Alegia, ez parte hartzeko planteamendua ote dagoen.



Laxaro Azkune eta Maite Aramendi. ||| Ainitze Agirrezabala

**MA:** Erabakia elkarrekin eta herritarren parte hartzearekin hartuz gero, zilegi eta herritarrok onartua izango da, emaitza edozein dela ere. Eta horrek gizarte kohezionatuagoa, sendoagoa, kritikagoa eta jantziagoa ekarriko du. Hortik egin behar dugu bidea, eta horretarako ahaleginean aritu gara hilabete hauetan. Nahiz eta, ziurrenik hainbat sektoretara ez iritsi.

**Bost hilabeteotan, hamaika ekimen antolatu dituzue. Zer balorazioa egiten duzue?**

**LA:** Aurkezpen ekitaldiarekin hasi genuen bidea. Sinadura bilketan herritarren %10 behar genuen eta ia %20ra iritsi ginen. Kriseluen gauarekin ospatuz. Guk garbi dugu herri galdeketa ez dela gure kontua bakarrik, guztion kontua da, eta erronka bota genien herriko sektore desberdinei. Erantzun oso ona jaso dugu; gehienek erronka horri heldu egin diote, eta bakoitzaren egutegiaren arabera ekitaldi desberdinak koordinatzen joan gara.

**MA:** Askotan esaten dugu herritarrok izan behar dugula protagonista. Eta kasu honetan ere hala izan da. Eragileek euren inizatibaz antolatu dituzte

ekimenak. Txalotzekoa, ezinbestean.

**Hitzartuk bere ibilbidean zehar nabarmendu du herritarrek parte hartzeak duen garrantzia. Horrek esan nahi du ez zaizuela inporta baitezak edo ezetzak irabaztea?**

**MA:** Erabakiz askatu nahi ditugu gure herriaren erabakitzeko eskubidearen korapiloak. Erabakitzeko ariketen bidez ahaldundu egin nahi dugu herritarrok. Herritarren erabaki askeak eraikiko du gure herriaren burujabetza. Hor dago gakoa.

**LA:** Gure mezua da erabakitzeko eskubidea praktikan jartzea. Botoa eman ahal duen guztiak botoa eman dezala. Hartara, jakingo dugu benetan herritarrek zer nahi duten. Honek mugimendu bat sortu du, eta olatu baten itxura hartzen ari da, eta beste herriak ere mugitzera eramango ditu.

**Parte-hartzearen kopuruari dagokionean, helbururen bat jarri al duzue?**

**LA:** Ez. Parte hartzen dutenak, direnak direla, izango dira egin dugun ahaleginak eman duena. Bestela, kopuruak jarri, eta zenbaki horietara iristen ez bazara,

porrot egin izanaren sentsazio hori duzu.

**MA:** Noski, erabakitzeko eskubidearen eskutik herritarren borondateak joan behar du. Eskubide horren subjektua gutako bakoitza gara. Herritar bakoitza. Eta beraz, helburu kuantitatibo konkreturik jarri ez badiogu ere, azpeitiar oro gonbidatu nahiko genuke bere eskubidea gauzatzera ekainaren 5ean, modu sinbolikoan izango bada ere.

**LA:** Botoa ematen ez duenak ez duelako eman nahi izango da. Ez enteratu ez delako.

**Galdeketa eta gero, zer?**

**LA:** Bazkari eder bat egingo dugu. Gure ariketa, nolabait, baratzan egiten den lana bezala da: lehenbizi, lurra landu, eta, gero, ikusiko da zer eraiten den.

**MA:** Erabakitzeko eskubidearen trena Euskal Herrira iritsi da. Indarrak batu behar ditugu gure etorkizuna erabakitzeko. Eta ekainaren 6tik aurrera ere egongo da ekarpena non egin.


**Galdeketa atarian, zergatik joan behar dute herritarrek bozkatzera?**

**LA:** Norberaren erabakia berea delako, eta eskubide hori praktikan jarri behar dugu. Gure gainean ditugun agintari horiei erakutsi behar diegu guk erabakitzeko nahi dugula. Hori nahi duenak egun horretan ipurdia mugitu eta botoa ematera joan egin behar du. Ez diogu eginkizun handia eskatzen.

**MA:** Ariketa demokratiko honek batu egiten gaitu; gure arteko hormak eta harresiak behin betiko gaunditzen laguntzen digu, elkar hobeto ezagutzen eta gure arteko loturetan sakontzen. Erabakiz herri gisa azaltzen gara, erabaki nahi duen herri gisa. Ozen diogu, gure herriarentzat bidea erabakitzeko da. Etorkizun zoriontsuago eta justuago bat izateko, denon artean erabakitakoa izango dena. Eta horretarako, herritar bakoitzak duen iritzia adierazi behar du. ✘

||| Ainitze Agirrezabala

# Herritarrek zer diote?

Independentziaren gaineko herri galdeketa atarian, kalera atera da Uztarrria, eta herritarrei galdetu die bozkatzeko asmorik ba al duten, eta bozkatzera zergatik joan behar duten.  Ainitze Agirrezabala

**U**ztarrria kalera atera da galdezka, eta botoa emateko asmorik ez duten hainbat herritarrekin ere egin du topo, baina haiek ez dute inkestan parte hartu nahi izan.



**MELITON RODRIGUEZ**  
62 urte

“Aprobetxatu beharra dugu eskubide hori”

“Bai, joango naiz. Orain arte ez dugu aukerarik izan gai horren inguruan pentsatzen duguna adierazteko. Guztiok gara libreak gure iritzia emateko, eta eskubide hori aprobetxatu beharra dugu”.



**ANA BASTIDA**  
31 urte

“parte hartzea oso garrantzitsua da”

“Noski, joango naiz. Herrian lan asko egin du jendeak azken hila-beteotan, galdeketa egunera begira. Eragile askok hartu dute parte, eta poz ematen du pentsamolde desberdineko jendea horren harira elkartzea. Herritar bezala eskubidea dugu pentsatzen duguna adierazteko. Aldarrikatzeko eskubidea praktikan jartzeko aukera dugu orain, eta azpeitiarrak botoa ematera animatzen ditut. Garrantzitsua da parte hartzea”.



**IÑIGO AGIRRE**  
59 urte

“herriaren aldarria zein den jakingo dugu”

“Bai, horixe! Nire iritzia ematera joango naiz, eta baita egunean bertan antolakuntzan laguntzera ere, bolondres. Gai honen inguruan zein beste edozer gairen bueltan, herritarrei pentsatzen duguna adierazteko aukera ematea ona eta beharrezkoa da. Nahiz eta independentziaren gaineko herri galdeketa hori ez den izango loteslea, herriaren aldarria zein den jakingo dugu, ekainaren 5ean. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da parte hartzea”.



**MAIALEN LOPETEGI**  
34 urte

“Aldarrikatzeko eskubidea aprobetxatu behar dugu”

“Bozkatuko dut. ‘Bai’ edo ‘ez’ albo batera utzita, garrantzitsua da parte hartzea. Herritar bezala aldarrikatzeko eskubide hori aprobetxatu behar dugu, nahiz eta galdeketa ez izan loteslea”.



**AINHOA OSA**  
21 urte

“Adierazteko aukera baliatu behar dugu”

“Lana dut egun horretan, baina tarte hartuko dut bozkatzeko. Zer izan nahi dugun adierazteko aukera baliatu beharra dugu”.



**ALUMINIOS AZPEITIA**  
ARRETXE KALEA, 13 ~ 20730 AZPEITIA  
TEL. 943 81 18 32 FAX 943 81 67 40

**ALUMINIO ETA FENOLIKO AROZTEGIA**

Kabinak - armairuak  
leku bustietarako altzariak

Aluminiozko lehioak  
lehiu mixtoak - atek - barandilak  
toldoak - itxiturak - bulegoetako hormak

kanpokalderako altzariak - entzimerak  
paretan forraketak - fatxada haizeztatuak








# UXOA IBARRETA

Dantza ikaslea eta irakaslea

“Niretzako terapiarik onena dantza egitea da”

Neska koskorretan hasi zen aretoko dantzak ikasten, eta Jose Mari Orbegozoren dantza eskolan ikaslea izateaz gain, irakaslea ere bada. 📎👁️ Ainitze Agirrezabala

**P**lazera” da dantzatzea Uxo Ibarretarentzat. Aretoko dantzetan hasi izana bizitzan hartu duen “erabakirik onena” izan dela dio. Dantza ikaslea ez ezik, irakaslea ere bada, orain. **Noiz eta nola iritsi zinen dantzaren mundura?**

Txikitatik gustatu izan zait dantzatzea. Neska koskorretan, udako gauetan, etxepean irrati-kasetea jarri eta dantzan aritzen ginen auzoko neska guztiak. Ezizena-eta dena irabazi nuen, *Shakira*. Txikitant, Itsasin ibili nintzen, bost bat urtez. Gero, hamar urte ingururekin, aretoko dantzak ikastera animatu ninduen lehengusuak, Lorea Seguroiak. Bizi erdia daramat horretan. Bizitzan hartu dudana erabakirik onena izan da.

**Aretoko dantzetan maisua den Jose Mari Orbegozoduzu irakaslea. Zer moduz?**

Hasierako irakasle-ikasle harremana lagunarteko harreman estua bilakatu da, denborarekin. Orain, gainera, irakaslea ez ezik nagusia ere bada.

**Zein da gehien gustatzen zaizun dantza?**

Erritmo latino azkarrak, batxata eta saltsa. Gerria mugitzeko aproposak dira.

**Eta zein da oraindik guztiz ondo egitea lortu ez duzun dantza hori?**

Baltsa eta pasodoblea. Eskolan gutxi dantzatzen ditugun estiloak dira; serioagoak dira. Sevillanak betidanik gustatu izan zaizkit, eta gustatuko litzaidake ikastea.

## ||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1993ko ekainak 28.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizitokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.**

Saloiko dantzetako irakaslea eta Giza nutrizioa eta dietetika ikaslea.

**Nola entrenatzen duzu?**

Alde batetik, bakarlana dago. Etxean neure kasa egunero egiten dut dantza. Bestalde, bikotekidearekin txukun aritzeko, elkarrekin entseatzeko dugu. Neskak Azkoitikoak eta Azpeitikoak gara, eta bikotekideak Beasaingoak ditugu. Horregatik, ezin dugu nahi adina entsegu egin elkarrekin, baina erakustaldiak ditugunean, denak emanda aritzen gara.

**Zein da zure dantzako bikotekidea?**

Azken lau-bost urtetan, bikoteki-

de bera dut, Luis Arturo Flores Vega. Altuerarengatik elkarrekin jarri gintuzten, biok txikiak garelako, eta ondo moldatzen gara. Izaitez Perukoa da, eta Beasaingo dantza akademiako ikaslea. Dantzatik aparte, lagun handia dut oso, familiakoa banu bezala estimatzen dut. Nire bizitzan garrantzia handia duen pertsona da. Dantzan ondo aritzeko, bikoteak elkar ulertzea oso garrantzitsua da. Onartzen dut aguantatzeko oso pertsona zaila naizela, oso perfekzionista eta zorrotza naiz, eta pausoak ondo atera arte jardun-eta jardun egiten dut.

**Koreografiak zeuek prestatzen al dituzue?**

Urtean zehar, pauso batzuk ematen joaten gara, eta, gero, Jose





Marik [Orbegozok] moldatzen ditu, kantuaren arabera. Jose Mariren bikotekidea, Jose Manuel Estelle, koreografoa da, eta hark ere prestatu izan dizkigu.

#### **Orbegozoren dantza akademian irakaslea ere bazara.**

Jose Marik ezin zuenean, bere ordezkari eman izan ditut klaseak, baina inoiz ere ez nuen neure ikasle-talde propiorik eduki. Urrian akademia zabaldu zuen Azeptian, eta dantza irakasle izateko eskaintza egin zidan. Astea Gasteizen pasatzen dut ikasten, eta, beraz, ostiral arratsaldetan umeen bi talderi eta helduen beste bati ematen dizkiot eskolak.

#### **Zenbat ikasle dituzu?**

Nire garaian zortzi ume baino ez ginen taldean, eta orain izugarria da umeengan zer indar duten aretoko dantzak. 5 urtetik 9ra arteko taldean 30 ikasle ditut, eta 9 urtetik 14ra bitartean 23. Helduen

taldean 14 ikasle dira. Generoari dagokionean, zortea dut; umeetan guztiak neskak dira, baina helduetan emakumeak eta gizonak parekatuta daude, eta oso ondo moldatzen gara bikoteak osatzeko garaian.

#### **Dantza erakustaldietan ere aritzen zara. Urtean zehar asko izaten al dituzue?**

Gero eta gehiago ditugu. Erakustaldi batzuk finkoak dira, urtero egiten ditugunak: Sanjuandegiko, Zumarragako eta Beasaingo festak, eta Soreasuko emanaldia, esaterako. Baina, tartean behin, sortzen zaizkigu bestelako konpromisoak ere.

#### **Txapelketetan-eta hartzen al duzue parte?**

Behin joan ginen bikotekidea eta biok Torremolinosera (Malaga, Espainia), saltsa txapelketa batera, probatze aldera. Izugarritzko maila zegoen parte-hartzaileen artean, baina esperientzia bezala

asko balio izan zigun. Jendea horretatik bizi da, eta urte osoan txapelketara begira prestatzen da.

#### **Telebistarako erakustaldiak ere grabatzen dituzue.**

Hiru urte inguru daramatzagu EITBrako dantza erakustaldiak grabatzen. Lehen, Sanagustinen grabatzen genuen, eta orain Zestoako bainuetxean hasi gara.

#### **Nola animatuko zituzuke mutilak areto dantzetara?**

“Etxepean irrati kasetea jarri eta dantzan aritzen ginen umetan”

“Nik ez dut Lana bezala hartzen; gozatu egiten dut dantzan”

Umetan zaila da, eskolaz kanpo aukera zabala dute: futbola, pilota, saskibaloia... eta umeak denora ez dira ailegatzen. Alabaina, azken aldian, aretoko dantzak indar handia hartzen ari dira herrian. Izugarria da. Ahoz ahokoak eta dantza erakustaldiek asko eragiten dute horretan.

#### **Zuri zer eman dizu aretoko dantzetan aritzeak?**

Dena. Lagun-kuadrillarekin baino denbora gehiago pasatzen dut familia horrekin, eta babes handia da. Niretzako terapiarik onena dantza da. Triste banago, erlaxatzeko balio dit, eta pozik banago poztasuna areagotzen dit.

#### **Zein dira dantzaren alorrean dituzun ametsak?**

Konpetentzia handia dago, eta zaila da arrakasta lortzea. Dantza eskolak ematen jarraitzea izugarria da niretzat. Nik ez dut lana bezala hartzen, plazera da niretzat, gozatu egiten dut dantzan.\*

# BURUZ BURU

## Itzartzen

Azken hilabeteotan badabil euskal larretan Estatu *propio* baten aldeko haize akademiko-populista bat –orotariko herritarrei zuzenduriko diskurtsoei egiten diet erreferentzia *populista* adierarekin–. Martxoan, egin genuen zirriborro prekario kasik filosofiko bat “herriaren parte-hartze demokratikoaren” (erreferendumen) falaziaz. Esan beharrik ez dago euskal *intelligentsia* nazionalista berririk eginiko *herriaren*, *demokratikoa* denaren eta *aske* izatearen berdefinizio interesatu eta arbitrarioek sortzen dutela negazio erre-aktibo sakon bat nigan. Denbora neraman herriko berririk izan gabe eta Vincent Partal eta enparauren aurpegia ikusteak areagotu egin du nire kemen suntsitzaila. Badakit, ordea, hira inpultsibo horrek arrazionaletik baino gehiago duela erreazio umekoitik.

Eratat onest izango natzaizu: ez diet estimurik euskararen militante zein nazionalista porrokatuei baldin eta euskararen militante

## Hitz hautsiak

Poz ukitu bat ematen dit, Jurgi, nazionalismoekiko, gure bizimodu nazionalista arruntarekiko, erakusten didazun zehaztasun kritiko zorrotzak. Elkarrengandik bereizten gaituzten ñabardurak ñabardura –ñabardura baino zerbait gehiago zure erreazio erantzuna– pozgarria zait ez direla guztiak jakitea, badagoela esperantzarentzat zirrikitu bat.

Galderaz eta antzekoek mesfidati ote nabilen susmatzen duzu. Ez naiz ibiliko? Atzo zen erantzun horretan zalantzarik zuen herritarra isiltasunik makurrenean bizitzera biolentziarik gordin eta lotsagabeenez behartzen zutena. Atzo gaua zen, gau luzea, gau beltza, galdera horri baietz erantzuteko borondaterik ez izatea aski zela bizkarrean bi pistolero hartuta ibili behar izateko. Bart zen egoera horretan begiratu eta ikusi nahi ez zuen jendearen hotzak, gupidarik ezak, gure bihotz kizkurtuen taupadak atzeman nahi ez zituena. Eta gaur horiek, ez horiek bakarrik baina, –horiek

eta nazionalista porrokatu soilak besterik ez badira. Gauzen egoera sozio-politikoaren inguruan inolako zalantzarik planteatu ez eta gainetik, inplizituki, egungo arau ekonomikoak berresten dituzten gizaseme soil gisak kontsideratzen ditut. Norberaren berezitasun etniko estrukturalak goratzea eta albokoarenari gainjartzea, *per se*, ez zait inolako jokamolde eredugarria iruditzen. “Independentsia zertarako? hobeto bizitzeko” diote, beste aldetik, akademiko-*majadero* batzuk, Men-debalde oparoan bizi garena ahaztuta.

Euskal *zerbait independentearen* alde egiteko arrazoi moral bakarra Espainia antagoniko baten presentzia dela konturatu naiz baina. Orduan hartzen du zentzua porroka nazionalistak. Euskalduntasunaren gorazarre itsua Espainiaren tradizio etnozentrikoaren horman pitzadura da eta euskal Estatu liberal baten aldeko grina, berriz, Estatu Espainiar monolitiko bateko statu-quo harri-ka

baino gehiago baina horiek nagusiki–, esku-zabal bihurtu dituzte koronelen aginduek, jende bihozbera, samurra, irribarretsua, demokratikoa, bakezale porrokatua. Zail egiten zait sinestea, ordea, oso, ez ezinezkoa ordea; izan liteke hala, baina emadazu denbora, utz iezadazu kontua horrela dela berifikatzen, betoz hona ere! Duela ez asko galdera edo antzeko prozesu bat planteatze huts horretan dabilzan asko, suspertzen, berme batzordea osatzen, ez dakit konturatzen zaren, ez dakit konturatzen diren, prest zeuden hori bera egin zezakeenaren hilotza eskubide urraketa bat bezala ikusi ordezkariaren ondorio adjektiborik gabeko bat ikusteko. Lasai beraz.

Zer esango dizut? Galde zezaketela lehenago. Zer nahi duzu esatea? Ez dakit zer egingo duten erantzunarekin. Nik ez daukat estatu demokratiko bat onartzeko eragozpenik, estatua dagoenetik gara eskubidedun,



### Jurgi arruti

tu dezakeen jarioa. Heterogeneotasuna eta sorkuntza dira *txikiaren* ezaugarriak; homogeneotasun inperiala, *handiaren* aliatuak.

Ukazioa da egungo egoera teorikoki eta praktikoki eralda dezakeen arma bakarra; haustura. Nazionalismoaren bertute bakarra nazionalismoaren ukazioa da; handiaren ukazioa. Inolako estratifikazio etniko-politikorik ez balego nazioa bera ukatu beharko baikenuke.

Ekainak 5eko galdeketa harira ari natzaizu. Egoera inolaz aldatuko ez duen mugimendu antzu gisa erreparatu izan diot prozesuari. Eta egia delakoan nago; euskal Estatu batek ez luke euskaldunengan inolako aldaketarik ekarriko, Estatu espainiaren pitzadura baino. Justu orduan ohartu naiz egoskorkeria idealista utzi eta ukazio pragmatiko bat baliotu dezakedala prozesuaren alde egiteko.

Susmoa dut zeu ere nahiko mesfidati zabilzala kontuaz, baina jakin nahiko nituzke zergati arrazionalak, baldin badaude.



### Ramon etxezarreta

estatuaren bidez bilakatzen gara eskubidedun herritar. Baina nik mundutar, munduko herritar, izan nahi dut. Estatu handi bakar bat nahi dut, non guztiok izango ditugu geure buruari aitortutako eskubideak, ez lurra emanak.

Mundutarrak ez ditut ikusten nire euskaltasunaren etsai. Albazeteño bat lasai izan dezaket bizikide, herrikide, ez naiz hura nire identitate bakan eta bereziaren mermatzaille edo etsai ikusteko gauza, opa diot nire zergen etekinak nirekin berdintasunean banatzea. Ez dut inoiz ulertuko xabiertar batek eta undues de lerdatar batek, enkarteritar batek eta castrotar batek, estatu ezberdin bateko herritar izan nahi izatea beren identitatea babesteko. Giza perbertsio larria da harrokeria itzela izateaz gain.

Estatutan banatzen den elkartasuna ez da giza elkartasuna, azken urteetako munduaren historiari begiratu bestela. Ez dut maite elkartasun hori.\*



**JOXE MARI IPARRAGIRRE**  
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Nekolalde 16 – 20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
Tel./Faxa: 943721403 / 943721413  
www.jmiparragirre.eus - 012286aa@hezkuntza.net



## ERIZAIN LAGUNTAILEA

Erdi Mailako Heziketa Zikloa. Osasun familia.  
A-D EREDUAK

### LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.



**AURREMATRIKULA:** Ekainaren 6tik ekainaren 17ra (biak barne)  
**MATRIKULA EGITEKO EPEA:** Uztailaren 11tik 15era (biak barne)

Jarri hemen  
zure publizitatea

# Orkatz, 23 urteko ibilbidea

Hainbat ekimen antolatu ditu Orkatz Kultur Elkartek urteurrena ospatzeko. Anariren kontzertua, 'Ametsen liburua' hitzaldia, bertso saioa eta bazkaria izango dira, besteak beste. 🍷 Ainitze Agirrezabala

**H**ilaren 23an, 23 urte beteko ditu Orkatz Kultur Elkartek, eta hori ospatzeko lau eguneko egitaraua antolatu dute, ekainaren 29tik uztailaren 2ra bitartereko.

Honakoa da prestatutako egitaraua: ekainaren 29an, asteazkena, Ametsen liburua hitzaldia eskainiko du Jokin Urain preso politiko ohiak Orkatzen, 19:30ean hasita. Hilaren 30ean, berriz, Anari Alberdi azkoitiarraren kontzertuaz gozatzeko parada izango da, Ordkatzen. Uztailaren 1ean, ostirala, 22:30ean, bertso saioa oizango da Orkatzen bertan. Etxahun Lekue, Alaia Martin, Igor Elorza eta Amets Arzallus bertsolariak ariko dira kantuan.

## Tony Rocketen kantaldia

Uztailaren 2a, larunbata, izango da 23. urteurren ospakizuneko

## ||| DATUAK |||||

||| **Zer.** Orkatz Kultur Elkartaren 23. urteurrena.  
||| **Eguna.** Ekainak 29, 30 eta uztailak 1 eta 2.  
||| **Ordua.** Egun osoko egitaraua ||| **Tokia.** Orkatz.  
||| **Antolatzailea.** Orkatz Kultur Elkartea.

egun garrantzitsuena, goizetik gauera arte luzatuko baita egitaraua. Hala, zapatuan, 11:00etan, 'Orkatz Kultur Elkartaren egora' hizpide hartuta batzarra egingo dute, eta, ondoren, hamaiketako. 14:00etan, bazkaria izango da Sanagustinen, eta, bazkalostean, Tony Rocketen kantaldia. Iluntzean, Bad Sound Sistem taldeak zuzenean joko du, Orkatzen, 23:00etatik aurrera. ✨

## ||| ORKATZ KULTUR ELKARTEA |||||

# 23

**urte.** Ia mende laurdeneko historia egin du Orkatz Kultur Elkartek. Hil honen 23an, 23 urte beteko ditu.

# 4

**eguneko egitaraua.** Anariren kontzertua, 'Ametsen liburua' hitzaldia, bertso saioa eta bazkaria izango dira, besteak beste. ✨



Anari azkoitiarrak kontzertua eskainiko du Orkatzen, hilaren 30ean.

## ||| BESTERIK |||||

## 1 Zinea, aire librea

Astrid Ligdren idazle suediarak sortutako Pippi Langstrump –Pippi galtzaluz, euskaraz– literaturako pertsonaia ezagunaren filma eskainiko dute. ||| **Eguna.** Ekainak 10 (ostirala). ||| **Ordua.** 22:00 ||| **Tokia.** Sanjuandegi. ||| **Antolatzailea.** XJ Auzolanean, Paradisu zinema.

## 2 Musika eskolaren jaialdia

Ikasturte amaierako eta uda hasierako urteroko hitzorduan kontzertua eskainiko dute. ||| **Eguna.** Ekainak 21 (asteartea). ||| **Ordua.** 19:30 ||| **Tokia.** Soreasu antzokia. ||| **Antolatzailea.** Juan Antxieta Musika Eskola. ✨

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: [uztarria.eus/agenda](http://uztarria.eus/agenda)

**AZKOITIA**  
ERLOJU  
KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

*Alar*  
mertzeria  
Loiolako Inazio Hiribidea, 9  
Tel: 688 81 87 78

**IRENE ALTUNA**  
LORADENDA  
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
[www.ialtunadenda.com](http://www.ialtunadenda.com)

 @Eregi\_EK Eregi Euskara Eta Komunikazioa

# Ekin eraiki

# EREGI

## Zerbitzuak

### Marka nortasuna

- Aholkularitza eta kudeaketa

### Komunikazio estrategia

- Komunikazio planak
- Komunikazio kanpainak

### Irudia eta diseinua

- Identitate bisuala: logotipoa eta euskarrien diseinua
- Argitalpenak: liburuak, aldizkariak, katalogoak...
- Seinaleztapena
- Argazkiak
- Ilustrazioak
- Bideoak

### Web

- Web orriak
- Sare sozialak
- Tablet/smartphone aplikazioak


### Harreman publikoak

- Prentsa bulegoa
- Ekitaldiak, produktu aurkezpenak...

### Hizkuntzak

- Testuen erredakzioa
- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara, gaztelania, ingelera, frantsesa, katalana, galegoa...

## HITZ GEZIDUNAK

	Nahastura trinkoa	Hodeiartea	Neskatoak	Noka, dut	Bokal errepikatua
	Goibel-tasuna	Barre	Tona, labur-labur	Afrikako ibaila	
	Erdi, hitz elkarketan		Yemengo hiriburua		
	Presio unitate		Seguru		
Beratu	Ortuaria				Tortura
* Izena	Nekadurak				
		* Deitura			
		Soldata			
Frantziako ibaila			Karta joko		Sufrea
Zaren horrek			Egoskin mota		Ez ezin
		... da, akabo euria			Kanpo, landa
		Behiaren arbaso			Eguneroko jaki
Nirea				Zikin	
Edatekoa				Atzizkia	
				Fruitu mota	
				1000	
Ukapena			Zigorra		

\* Mediku azpeitiarra

Egilea:  
Luma

## SUDOKUA

				4			6	
	3	6	2			4		
2				8	9			1
6					8		2	
				1				
	1		5					3
8			7	3				6
		2			5	3	7	
	4			2				

"Il Partigiano" azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.

ETXERA ERAMANGO DIZUGU

**Telefonoa**  
**943 08 09 13**

ildefonso gurrutxaga, 12 behea



## |||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Ekainaren 22a (asteazkena)|||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola Ardoak-ek emandako ardo sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarrria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoen irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.



## |||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||||

1 MEDITERRANEOAN

2 OIHU EZAGUNA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

### |||SOLUZIOAK|||||||

HITZ GEZIDUNAK

A	L	I	K	A	M	•	A	O	K	U	•
A	R	A	G	A	S	•	A	R	I	A	E
H	O	L	•	A	E	A	R	E	U	N	•
A	•	R	I	E	A	•	K	Z	U	K	•
•	E	T	U	T	•	S	E	R	G	•	•
E	A	R	I	A	R	•	I	N	A	L	•
•	A	K	Z	A	R	A	•	B	A	B	•
A	N	A	•	S	A	R	•	T	E	•	•
A	•	Z	I	S	T	R	•	I	S	T	•
•	•	N	•	O	•	O	•	•	•	•	•

SUDOKUA

9	5	8	6	2	1	7	4	3
4	7	1	2	6	8	5	9	3
1	6	2	8	9	5	3	7	4
8	5	9	7	3	4	2	1	6
4	1	8	5	6	2	7	9	3
7	2	5	9	1	3	6	4	8
6	9	3	4	7	8	1	2	5
2	7	4	6	8	9	5	3	1
9	3	6	2	5	1	4	8	7
5	8	1	3	4	7	9	6	2

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Alerta      2 Kanpandorrear

### |||UZTARRIAREN EKAINEKO LEHIAKETA|||||||

IRABAZLEA



**Isabel Jauregi**  
Uztarrria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 183. lehiaketaren irabazlea. Odriozola upategiak emandako ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian lehiaketaren irabazlea, bi ardo botilako sorta eskuetan duela.

## ODRIOZOLA ARDOAK

Egin klik eta bisitatu gure denda birtuala

[www.catandovino.com](http://www.catandovino.com)

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16  
Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumaiá 943860103



## |||ARGAZKIA|||



## ▲ZUHAITZAK.

Azpeitiko Argazki Elkarteko Juan Mari Ibarzabalek garaipena lortu du Zarauzko Argazki Rallyan. Lehenengo postua lortzeaz gain, zuhaitzei buruzko bere irudiak rallyko argazki onenaren saria ere irabazi du. Azpeitiko Argazki Elkarteko ordezkarien esanetan, "aurten, elkarteko kideak egundoko indarra ari dira erakusten". Ibarzabalek Zarauzko argazki rallyan aurkeztutako irudi bilduma ikusgai dago elkartearen webgunean: 'www.azpeitikoargazkielkartea.com' atarian. Zorionak, Juan Mari!

|||Azpeitiko Argazki Elkartea|||

## |||EFEMERIDEAK|||

1869

**Udal telegrafo estazioa martxan.** Arduradun, Joxe Blasco telegrafista izendatu zuten.

1928

**Txistu Eskola martxan.** Udalaren laguntzaz Oargi taldeak antolatuta jarri zuten abian.

📖 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.  
 |||Egilea: Imanol Elias Odriozola.  
 |||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.★

## |||INKESTA|||

**Ekainaren 5eko independentziaren gaineke galdeketa emango al duzu botoa?**

**Bai.** %81,11.

**Ez.** %15,64.

**Oraindik ez dut erabaki.** %3,26.



KOLORAZIO SISTEMA BOTANIKOA  
 %100 BELAR OSAGAIEKIN

% 100 PRODUKTU NATURALAK

ILEAPAINDEGI BIOLOGIKOA



AGIRRE AUZUNEA, 1 AZPEITIA • TEL. 943 503 936 • ANA.bio



# Fruta edo zukua

**F**ruta jatea eta horien zuku naturala hartzea ez da gauza bera. Menbrilloa eta fruta jatea gauza bera ez den bezala. Menbrilloa frutarekin egina badago ere, desberdintasuna begibistakoa da.

Frutaren eta zukuaren artean ere desberdintasun nabarmenak daude. Zukuek kilokaloria gehiago ditzute, eta zuntz kantitate askoz ere baxuagoa dute. Horrez gain, zukuek askoz ere gutxiago asetzen dute, eta, beraz, kantitate handiagoan hartzeko joera izaten da. Horregatik, komenigarria litzateke zukuen kontsumoa gehiegizkoa ez izatea. 2013an, Harvardreko unibertsitateak aholkatu zuen zukuaren kontsumoa egunean baso txiki batetara mugatzea.

Egunero, fruta kantitate nahikoa jaten badugu, hau da, hiru anoa egunean, inongo arazorik gabe edan genezake zuku baso bat.

Frutaren ordez zukua edatea gomendatzen den arrazoi bakarra, eriondo dauden pertsonetan da, murtzikatzeko arazoak dituztelako. Bestalde, jatorduan, uraren ordez zuku asko hartzeak pisua gehitzearekin eta diabetesarekin erlazio zuzena du.

Zuku komertzialetaz hitz egin ere ez, horiek beste dimentsio bat hartzen dute eta. Umeen hamaiketakoan eta meriendan, horien kontsumoa asko hazi da.

Aukera zurea da!\*



|||||||aitziber aizpuru|||||||

# IÑAKI EZENARRO banatzailea



### 1. Banaketak, nora?

Partikularrei, enpresetara nahiz komertzioetara.

### 2. Eta, non?

Azpeitian eta Azkoitian.

### 3. Krisiaren eragina...

Maila nazionalen oxigenoa banatzen nuen lehen, baina siderurgia-krisia medio, lanik gabe geratu nintzen.

### 4. Buelta ematen ari gara?

Makina-erremintak eta altzari arloak hobera egin dute; ez, ordea, herriko saltoki txikiek.

### 5. Internet bidezko erosketak...

Partikularrek gero eta gehiago egiten dituzte.

### 6. Egunean zenbat entrega?

26 entrega eta bilketa.

### 7. Beti oztopen?

Kamioia ez dut aparkatzen; utzi egiten dut, eta sesioak izaten ditut udaltzainekin.

### 8. Lanbidearen ona?

Jendearekin dudan tratua.

### 9. Eta, alde txarra?

Estresagarria da, sarritan.\*

✉ Ainitze Agirrezabala

**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

Lamaialdiak:  
943 15 16 40

**ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Arretxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**Aiortza Autoak**

**CITROËN** 943 811 915 - AZPEITIA  
aiortzaautoak@telefonica.net

**ORDULARI**

Jose de Arretxe, 10  
Tel. 943 81 52 44

**Iuba**  
aholkularitza

Aholkularitza:  
-tiketa  
-laboratu  
-kontabilitate

Gestori lanak  
Finanzen administrazioak  
Gestio inmobiliarioak

Tel: 943 157 929 Faxa: 943 157 973  
Erretzen kalea, 43 - Iuba.azpeitia@balmat.net

**KIRURI**  
JATETXE

Loiola hiribidea, 24  
**LOIOLA - AZPEITIA**  
Telefonoa: 943 81 59 08  
Faxa: 943 15 03 62

**adi** ARTE ETA DISËNU ESKOLA ELKARTEA

**Marraskia eta eskulanak** (haurrak) 17:30 - 19:00

**Pintura** 16:00 - 17:30 (helduak) 19:00 - 20:30

**Talla** 18:30 - 20:00

Jose Arretxe kalea, 3  
943 81 28 08  
arteladiseinu@gmail.com  
Matrikula urte osoan zabalik



# Mendiaz haratago

Lagun Onak Mendi Bazkunako lehendakaria izateaz gain, beste zaletasunetatik ondo daki gozatzen Unanuek. 📧📧 Olaia iriola

**L**agun Onak Mendi Bazkunako lehendakariak txikitatik izan du zaletasuna mendiarekiko. Xoxote, Erlo, Ernio... Azpeitia inguruko mendietara beti ibili da bueltaka Aitor Unanue (Azpeitia, 1981). 20 urte inguru zituela, kanpora joatearen kuriositateak bultzatu eta Azpeitiko Mendi Elkarteko ibilaldi batera animatu zen. "Hasieran paliza ederrak hartu nituen baina jende asko ezagutzeko balio izan zidan", dio Unanuek. Ibilaldi gehiagotara joaten hasi zen, eta pixkanaka taldean integratzen. 2007an, lehendakari al-

daketa egin behar zen elkartearen, gazte bat nahi zuten. Unanue postu horretara animatu eta gaur egunera arte dihardu horretan lanean. Pertsona saltsero moduan definituko luke bere burua: "Geroz eta saltsa handiagoetan sartzen ari naizela ohartzen ari naiz."

Unanueren ogibidea, ordea, ez da lehendakaritza: "Ofizio horretatik ezin da bizitza aurrera atera". Bi goi mailako ziklo ditu ikasita mendizaleak. Lehenengo, mekanikari lotutako Goi Mailako Ziklo bat ikasi zuen eta lanean urte batzuk egin ostean, langabeziak bultzatu,

Elektronikako Goi Mailako Zikloa ikastera behartu zuen egoerak. "Ez zait sekula gustatu izan ez bata ez bestea, baina ikasketetan aurrera nindoala beste titulu bat ateratzeko beharra sentitu nuen. Selektibitatez ez nuen egin, hori ez nuela atera nahi garbi izan nuen beti". Oposaketak egin zituen eta bidezain da ofizioz, gaur egun.

## Ofizioa afizio?

Bidezain izan aurretik, lantegi eta bulego batzuk zapaldu izan ditu. "Nire ofizioa aire libre-

an delako dut gustuko” azaldu du. “Berriz lantegira edo bulegora itzuli beharko banuke, asko kostatuko litzaidake, kanpoan lan egitea oso gustuko baitut”. Eguraldi onarekin oso lan polita den arren, euriarekin lan egitea gogorra dela azpimarratu du lehendakariak. “Bero handiak txarrak izaten dira, baina txarrrena bustitzea izaten da. Elurra egiten duenean, gutxienez, elurra kentzeko makinak erabiltzen ditugu.”


Bidezain izateak eta Mendi Bazkunako Lehendakaria izateak ez dutela loturarik azpimarratu du mendizaleak. “Lana dela eta, noiz edo noiz, Aratzerreka edo Oinatzeko bideak egin behar izaten dugu. Mendiari lotutako laneko horrelako ekintzak oso gustura egiten ditut”, dio Unanuek. Neguan asko eskertzen du herriko mendiak gertu izatea: “Pirineoetara joaten gara elur bila etxe ondoan daukagunean”. Bidezain ofizioa gustuko duen arren, baldintza berdinekin Mendi Elkarteko lehendakari izatea edukiko balu, onartuko lukeela dio.

### Afizio gehienak kirolari lotuta

Lehen korrika egitera joaten zen baina orain nahiago du bizikletan ibiltzea. Asteazkenean zehar bizikletan ibiltzen da eta asteburuetan mendira joatea du gustuko Unanuek. Bizikletan errepidetik ibiltzen da, mendian “baldarra-goa” baita. Tartean probak ere egin ohi ditu. Duela hiru urte, Quebrantahuesos proba egin zuen Jakan eta aurten, hori baino txikiagoa den Treparriscos egitea du xede. Tartean behin egiten ditu horrelako probak, bere buruari erronkak jartzeko: “meta bat jartzeko ondo egoten da tartean behin proba bat edo bi egitea”. Probetan denbora zehatz bat egitera ez da joan ohi: “helburua ondo pasatu eta gero parranda on bat botatzea da”.

Beste zaletasunetako bat, kirolari lotuta hau ere, zesta-puntan ibiltzea da: “asko disfrutatzen dut baina leku falta dela eta ez dut nahi adina jokatzeko izaten”. Urtean pare bat aldiz frontoira joatearekin konformatzen da.

Bidaiatzea ere gustuko du Unanuek. Pirineoetara eta Alpeetara joan da mendizaleak sunak bultzatuta baina horrez gain, mundua ezagutzeko aukera gehiago ere izan ditu Unanuek. Europatik buelta batzuk egin ditu, Suitzara eta Danimarkara, besteak beste. Itsasoa gurutzatu eta Kanadan ere izan zen iaz ezkontza-bidaian. Bere ametsa Himalaiara joatea izango litzateke baina “denbora eta dirua” behar direla dio. Bidaiatzen duenean bidaia zati ezberdinetan banatu ohi du: Jar-duerak eta gauza aktiboak alde batetik eta



1

3

2

4

5

1. Bidezaina da lanbidez Unanue.
2. Festaz festa erraldoiak eramaten ibilitakoa da.
3. Bizikletarako afizioa ere badu.
4. Kanadan, ezkontza-bidaian.
5. Danborra jotzen mendizaleen taldearekin ateratzen da, ia urtero.

atsedena, bestetik. “Oporretan mendira joatea gustatzen zaidan arren ez dago hondartzan tripaz gora egotea bezalakorik”.

### Herriko festetan, lanean jai

Azpeitiar gehienek antzera, festazalea da Unanue. Herriko festak lanetik jai eskatzen ditu, “sakratuak” baitira berarentzat: “Sanizazioak kanpoko jendearentzat dira gehiago, eta nahiago ditut San Sebastianak, Santo Tomasak eta Karnabalak”. Urte batean edo bestean lanagatik ezin izan duen arren, ia urtero irteten da San Sebastianetako danborradan. Hala ere, Astelehen Karnabala du gustukoena mendizaleak: “irten eta indioarena egitea ederra izaten da”.

Herriko festetan nahiz ingurukoetan erraldoiekin ere ibilitakoa da Unanue. Behin, Taragonan izan zen taldekideekin. Bost-sei urtetan ibili ziren erraldoiak festatik festara eramaten.

### Amets Arzallusekin nahastuta

Amets Arzallus bertsolariak ile gehiago zuen

garia, berarekin nahasten zuten Unanue. “*Todo dios*-ek behin eta berriro bere antza nuela esaten zidan, eta poz hartu nuen Amets [Arzallus] ilea galtzen hasi zenean, egia esan”. Parrandetan ordu txikitari bertso eske hasten zitzaion jendea azpeitiarrari. “Emazteari ere esan ohi izan diote ‘ah, zu Arzallusen emaztea zara’”. Gero eta jende gutxiagok egiten dizkio horrelako iruzkinak, ordea, “gero eta ile gutxiago” baitu bertsolariak.

### Herriko festetan, lanean jai

Teknologia berrietan ez dela “abil-abila” dio Unanuek. “Hala ere, egunerokotasunak horretara jartzen zaitu. Ni telefono mugikor sinple batekin konformatzen naiz”. Sare sozialei dagokionez, *Facebooka* erabiltzen du. “Albisteak irakurtzeko eta lagunengandik eguneratzekeko erreminta moduan ondo dago”. Noiz edo noiz, mendiari lotutako zerbait argitaratu duen arren, bere inguruko eta bizitza pertsonaleko gauzak ez ditu argitaratzen sarean.✘

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurugiro Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00	Eregi	943 08 06 88
-------	----------	-------	--------------

## FARMAZIAK (EKAINA)

### EGUNEZ

1-8-13-19-20-25-31

Beristain (Azpeitia).  
943 811949

4-5-10-15-23-26-27-30

Jacome (Azpeitia).  
943 080258

2-7-14-22-29

Alberdi (Azpeitia).  
943 815974

6-11-12-17-20-28

Aranburu (Azpeitia).  
943 811350

3-9-16-24

Eizagirre (Azpeitia).  
943 811350

GAUEZ, URTE OSOAN

Jacome (Azpeitia).  
943 080258

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Ekainaren 29an izango  
dute hitzordua, 17:00etatik  
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

### BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

## ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 UDALTZAINGOA || Egun osoz irekita egoten da ANBULATORIOA || Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 GAZTELEKUA || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### ▲ XAGUXATAR PARKEA.

Herritarrek erabiltzeko pronto dago Ingurugiro Etxea Museo ondoko parke berritua. 1.800 metro karratuko azalera duen guneak saguzarra du irudi eta sei gunetan banatu dute parkea.

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07


|| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak

# NEREA BERASATEGI

triatleta

“kirola eginez gozatzea da nire helburua”

Duela bi urte, 12 urterekin, egin zuen lehen akuatloia, eta esperientzia hura eta gero, triatloiak egiten dihardu.  Ainitze Agirrezabala

**N**ondik datorkizu triatloiak egiteko afizioa?

Igeriketan hasi nintzen, hamar urterekin, eta Nafarroan, Zizurren, igeria eta korrika uzartzan zituen proba batean hartu nuen parte, eta irabazi egin nuen. Esperientzia hura eta gero, triatloia probatzea erabaki nuen.

**15 urtera arte, Gipuzkoan lehiatu ezin, eta Nafarroan federatu zinen. Nola moldatzen zara entrenatzeko?**

Prestatzaileak adierazten dit zer entrenamendu egin, eta neure kasa aritzen naiz. As-tean bitan egiten dut korrika; igerian egunero, Izarraitz taldearekin, eta asteburuan bizikleta. Nire adinean ez da ona gehiegizko esfortzua egitea, oraindik gorputza guztiz garatu gabe baitut, eta asko zaintzen ditugu entrenamenduak. Taldeko txapelketa dugunean, Iruñeara joaten naiz entrenatzera. Gai-nontzean, ez dut dieta berezirik jarraitzen.

**Triatloietarako afizio sendoa sortzen ari dela dirudi, ezta?**

Azken urteotan, espainiar estatuan federatu kopuru altuena izan duen modalitatea da triatloia. Azkoitian bada talde bat eta azpeitiar

ugari daude bertan. Nafarroan egundoko lana egiten dute modalitate horretan gazte-txoekin; Gipuzkoan, berriz, batere ez. Irailean, esaterako, Izarraitz elkarteak triatloia eskola sortzeko asmoa du gaztetxoentzat.

**Zein triatleta duzu gustuko?**

Ainhua Murua. Getariako triatloia berak irabazi zuen, eta ni bosgarren sailkatu nintzen.

**Zein dira kirolean dituzun ametsak?**

Une honetan nire lehentasuna ikasketak dira. Kirola eginez gozatzea da nire helburua. Iaz, Espainiako lau onenen artean hautatu ninduten Madrilgo errendimendu altuko zentroan egin zuten kontzentrazio baterako, eta Espainiako kirol teknifikazioko programan nago sartuta. Hil honetan, beste kontzentrazio bat dago eta ea hautatzen nauten. Murtzian, Madrilen eta Bartzelonan errendimendu altuko zentroak daude, eta horietan barneko ikasle bezala beka eskuratu dezakezu, baina izugarriko maila dago eta oso zaila da. Nafarroak eta EAEak izan ezik, Espainiako gainontzeko erkidegoek errendimendu altuko teknifikazio zentroak dituzte. Zentzu horretan, hemen lan gehiago egin beharko litzateke.\*



1. Nerea Berasategi triatleta. 2. Espainiako duatloia txapelketan podiuma egin zuten Sorian, taldeka eta erreleboan. 3. Ainhua Murua triatletarekin, Getariako proba egin ondoren.



# ez adarrik jo, luix

**E**z adarrik jo, luix. bart lanean hasiak, erretiratzekotan omen haiz. ez adarrik jo.

bart lanean hasiak, erretiroa hartzeko garaia luixek. hala esan didate gure herriko bu-ruagara etorri zaizkigun nuarbeko arotzak... artean gazte gu denok, autostopean hartu gintuzten luixek eta xexiliok diane bi zaldiko laranja kolorekoan. laranja kolorekoa, behar-bada. beti baliteke gure memoria honezkero flakoak auto haren kolorea ajatu izana ere. luixek berak jakingo du inork baino hobeto. autostopean hartu gintuzten gerora lagun handi izango ginenok. loiolako ikastolaren kamixeta, hura bai, seguru, laranja, zeraman jantzita udako egun hartan, artean gazte gu denok, zumaian hartu gintuenean. ezin asmatu inork gure bideak orduantxe lotzen hasi zirela, hasiera besterik ez zela hura, hamaika urte, hamaika pasadizo, hamaika mila ume etorriko zirela elkarren ondoan lanean ari girela perretxikoan.

perretxikoan izan ginen-eta gu irakasle, lur-desekin batera. baina horretara baino lehen, orduko zuzendari eusebiori egin behar izan genion bisita, emandako hitza bete zezan, agindutakoa konplitu, luix-lurdes-hirurok, gazte, fresko eta alai, maila berean irakasteko berak izan zuen asmoan atzera egin ez zezan. hiru gazteok konplizitatea genuen ordurako, zuzendariak berak ere begi onez ikusten zuen gu hirurok osatutako taldea, etorkizuneko apustua esaten da orain. eta horren alde borroka, txikia, egitea tokatu zitzaigun. ezin ahaztu, sanpedro bigarren batez azkoititik azpeitira ilunduta bizikletan nentorrela, aita santua udazkenean loiolara zetorrela eta obrak seinalatzeko kono argiztatu gabeko baten kontra jo, kanpanbuelta egin eta hurrengo egunean ospitalera eram nindutela. Eta kirotatik gelara, izara artean zazpi egun eginda etxera etorri nintze-nean, laster gure nuarbetarraren bisita, "euxe-biok lurdes ez beste irakasle bat jarri dik



|||||||miel a. elustondo|||

|||Aditu orduko jaiki nintzen ohetik, loiolara luis eta biok, ikastolara, zuzendariari hitza betetzeko gogor eskatzera

gurekin batera". aditu orduko jaiki nintzen ohetik, loiolara luis eta biok, ikastolara, zuzendariari hitza betetzeko gogor eskatzera.


## Indiojoxemari

hainbat urte etorri ziren, hainbat ume, hainbat jokin eta maider, hainbat ainhoa eta iban, hainbat ziklista eta sokatira, hainbat jolas eta ibilaldi... eta, tartean, zenbait joxemari, gure indiojoxemari, euskaraz trebatzera ikastolara etorri zitzaigun marianista gasteiztarra, jose mari egiluz, oraindik orain jakin dudanez, gasteizko lehenengo ikastola klandestinitatean zenean, hango umeak marianisten kolegioan izena emanda baleude bezala onartu zituena, eskola-kartila izan zezaten. ez da aspaldi hila indiojoxemari, azkeneko urteetan gaixo terminalak bisitatzen eman zituen egunak eta gauak. guk orduan ezin asmatu gizonak ezkutatzen zuen kategoria.

ezin asmatu ezer orduan. orain, bai, urak jo-andakoan presa egiten ari garenean... erretiratzeko garaia hortxe denean...✘



## %21 igo dira Uztarria.eus-eko bisitak 2015ean



Inoizko daturik onenak izan ditu Uztarria.eus-ek 2015ean; izan ere, 1.210.320 bisita izan ditu, [2014. urtean](#) baino %21 gehiago. Erakutsitako orri kopurua ere hazi egin da eta ia 3 milioi orri erakustera igaro da: 2.898.734, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du egunero-egunero, batzaz beste, 3.300 bisita izaten direla eta ia 8.000 orri erakusten direla.

### ESKELA ZERBITZUA



Carmona Ehorztetxea  
Pablo VI, 7  
Asteko egun guztietan  
24 orduko zerbitzua

Telf: 943 15 15 14  
Mobila: 629 43 42 67

**30€**



Uztarria  
Perez Arregi 1, behea  
Astelehenetik ostiralera,  
09:15-13:15  
15:00-19:00

Telf: 943 15 03 58

## Hilberrien informazioa eta eskela zerbitzua martxan Uztarria.eus-en

Uztarria.eus | 2014-12-18 : 15:40 | [UZTARRIAEUS](#)

Herrian hiltzen diren guztien berri emango dugu Uztarria.eus webgunean, portada nagusiko eskubiko zutabearen eta [Zerbitzuen atalean](#). Hala nahi dutenek, eskelak ere jarri ahal izango dituzte webgune honetan. Carmona ehorztetxearekin elkarlanean abiatu du zerbitzu berria Uztarriak

### Komunitatea



Di-da!  
2015-09-25 10:48

**Azpeitian grabatutako 'Aitarene Etxea' telesaila irailaren 30ean estreinatuko dute**

Telesailaren zenbait atal Azpeitiko Burdinbidearen Euskal Museoan grabatu zituzten; joan den uztailean. Telesaila datorren asteazkenetik aurrera ikusi ahal izango da ETB1en.

[»» Segi irakurtzen](#)

[»» Komunitateko gehiago](#)

### Agenda

Azken ostirala  
gaur | 19:00

Dantza: 'Solasean'  
gaur | 21:30

Kontzertua: Laket  
bihar

[»» Ekitaldi gehiago](#)

### Hilberriak



**XXXXX XXXXX XXXXX**  
2015eko ren ean hil zen, urte zituela.  
Helbidea: [»» 2 eskela](#)



**XXXXX XXXXX XXXXX**  
2015eko ren ean hil zen, urte zituela.  
Helbidea: [»» 2 eskela](#)

### Eguraldia

Gaur  
Ostirala  
09-25



Max: 21°C  
Min: 9°C

Bihar  
Larunbata  
09-26



Max: 20°C  
Min: 10°C

Etzi  
Igandea  
09-27



Max: 19°C  
Min: 10°C

[»» Egun eta datu gehiago](#) | [AEMET](#)-ek emaniko informazioa



**AA**  
**Alberdi-eneA**  
*zure etxerainoko zubia*

**ERAIKUNTZA BERRIA**  
**54 ETXEBIZITZA**  
 1, 2 ETA 3 LOGELA

**3 LOGELA**  
 235.000€ -TIK HASITA

**INFORMAZIOA ETA SALMENTA**  
**683 704 750**  
 JOSE DE ARTETXE, 8 KALEA

[www.alberdienea.com](http://www.alberdienea.com)



**BILMENDI S.L.**  
 ALBERTO FRANTZESENA - Harreman komertziala  
 alberto@bilmendi.com  
 Tel: 626 38 23 06 - 943 15 78 21



**ERA GUZTIETAKO  
 ERREFORMAK**

**INTERIORISMOA**

